

anaitasuna

1977.EKO MAIATZAREN 1EKOA 339. ZENBAKIA 35 PTA.

MAIATZAREN 1.a
LANGILE
EGUNA



geure herri eta jendeen alde



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



AURKIBIDEA

3. Editoriala
- 4-7. TELETIPOA
8. MAIATZAREN LEHENNA
- 9-10. Gernika egiaren bila
- 11-13. Gernika "eguna" egunkarian
15. E.S.A.M.
- 16-17. ESEI Donostian
- 18-19. Hauzo Elkarateak krisian?
20. Lana
- 21-24. Komikia
- 25-26. Politik ekonomia
- 27-28. Lemoniz
29. ZEHATZ aldizkaria
- 30-31. Aresti poeta mistikoa ote?
- 32-34. Deiturak (1)
- 35-37. Algortako kultur astea
38. Musika
39. Parabolak
40. Liburuak
41. Postak
42. Kaleko

Makinistak: Itziar eta Idoie

Maketapena: Erramon Zumalabek

Montaiak: Josebak.

Argazkiak: Arkoila eta X. Arzellus.

Moldiztegia: Gráficas San Pedro. Part. Alzola, 2. BILBAO.

Dep. Legal: BI-1753-1967



maiatzaren 1.a

Hauteskundeen aurreko une hau, alderdi politikoen plazaratzea dela esan genezake. Era askotako (guztietako?) ideiak entzuten dira nonahi publikoki. Kontrakoak zenbait.

Baina guztiak bat datoz puntu batetan: ekonomiaren harritasuna, inflazioaren goratzea, eta alor honetan neurri zuzen eta gogorak behar direla.

Espainiako Gobernuak ere erantzun bat eman nahi izan dio egoera honi. Eta langilearen lanpostua defendatu ordez, 35. artikulua kendu eta nahi duena egiteko eskubidea eman dio kapitalari. Gogoan ditugu Tarabusi, Aurrera, etab.

Urte hau gogorra izan da langileriarentzat. Bere klase eta ekonomi egoeratik datozkion arazoak konpontzeko nonahi burukatu behar izan du, ahal izan duen bidetik. Izan ere, grebarako eskubidea (langileak duen harma bakarra) oraindik ez zaio onhartu.

Halaber, politik askatasunerako burrukan ere aitzindari izan da langilea. Amnistiaren alde hainbat aldiz kaleratu da langilea. Euskal Herriko burruka langilearen esku egon da. Dударik ez.

Beraz, ez da harrizkoa, langile alderdi politiko gehienak oraindik legalizatu gabe egotea. Suarez eta ingurukoek ezarri nahi duten demokrazia burjesean ez dute lekurik langile burrukalariek, eta are guttiago langile abertzale burrukalariek.

Era berean, ez zaio onhartu nahi langileari bere egunean, maiatzaren lehenean, eskariak agertzeko biderik. Trabak ugari izango dira. Baina langilearen eguna da eta behar bezala hospa dezala espero dugu.

ANAITASUNA honetatik bihoazkio zorionik beroenak euskal langilegoari, eta ekin eta jarrai besterik esatea zail zaigu.

teletipoa

APIRILA.

6.— Iñaki Biar, Andoni Arrizabalaga eta Karmelo Garitaonaindia, kaleratu berriak, Lekeition, askatasuna ospatzeko afalondoan, goardia zibilek hartu dituzte eta koartelera eraman.

8.— Nafarroako ORT-eko 7 militante gelerazi ditu poliziak, hiru Gasteizen Autonomi Estatutuaren aldeko kartelak ipintzen ari zirela (Anjel Zorokiain, Kristobal Martinez eta Frantzisko Gimeno), eta lau Iruinean, Aberri Egunerako deiak itsasten ari zirela (Felix Lizarraga, Xabier Aldaia, Bizente Gonzalez eta Txaro Begu).

10.— ABERRI EGUNA

11.— Presoak kalera: Albizu eta Etxebarria. Bizkaian, Abanto-Zierbanako txabola batean bildurik zeudèn sei gazte gelerazi ditu poliziak. Ez dakigu zergatik, ez eta haien izenik ere.

Bizkaiko Obrascón-eko 900 langile lanik gabe daude Bilbotik Zaragozarako autopistan, enpresaren hixtea erabakitzean.

12.— Gartzelutako gose grebak bukatu dira.

Luz Fernandez Alvarez atera dute Yererías-eko gartzelatik. Migel Castels-en ustez, Eva Forest ere laster irten daiteke, antzeko lege egoeratan da goelako.

Lau preso kalera: Josu Abrisketa Korta, Ugaokoa, Jose Ignazio Aramaio Agirre, ondarroarra, Patxi Arana Arrizabalaga, bermeotarra, eta Iñaki Elizetxea.

13.— Kantauriko 1.500 arrantuzietarik 124 soilik saia daitezke arrantzan 200 miliaren "Hesparruan", CEE-ren erabakia "demokratizatzaileak" adierazten duenez.

Federiko Bergaretxe Abaigar, Iruineko alkatearen dimisioa onhartua izan da. Iruineko udala, orain, Eduardo Auzmendiren zuzendaritzapean geratzen da. Bestalde, hiru kontzejal baino ez dira geratzen, beste hirurek utzi baitute, segituko sei bileratara ez joatearren.

Burgoseko gartzelan dauden 8 presoak, zigorgelatan sartu dituzte bost egunetako gose greba egin dutelako. Karlos Agirre, Emilio Goitia, Joan Migel Goiburu, Joseba Mentxakatorre, Iñaki Arregi, Pedro Perez, Mariano Iburguren eta Jose Luis Beotegiren gose greba, amnistiaren urritasunagatik protesta egitea izan da.

Konbergentziarako Elkartasunaren presentazio ttikia Basahurin. Egun berean, EHASEko bi burkide Konbergentziaren kartelak ipintzen ari zirela, hauetariko bat, Fidel Bikandi, gelerazten dute eta Indautxura eraman.



14.— "Argala" eta Jesus Makazagak judizio bat ukan dute Baionan. ETaren osokideak izateaz ziren salhatuak. Garbi irten ziren.

Pedro Mari Fernandez Trincado, bilbotarra, eta Jesus Zabarte Arregi, arrasatearra, biak ETArrak, kaleratuak izan dira Puerto de Santa Marian.

Karlos Garaikoetxea, abokua, PNV-en presidente hautatu dute aste honetan.

PNV irten da azkenez zorioneko Komisio Negoziatzailetik.

Bilboko Benidorm kaleko "Legarreta" kafe dastategi batetan atentatu bat gertatu da goizaldean. Handik iragaten ziren gazte batzuk itzali zuten bertan geraturiko sutea.

Donostiako Loiola hauzategian eztagailu bat aurkitu da trenbidean.

Arratsaldeko 7etan, Eibarreko Sindikatua, PSOE-ko ehun bat militanteek bete dute, eta pankarta gorri handi bat jarri dute bertan, "Casa del pueblo" irakur zitekeelarik. Hitzaldi labur batez, berehala bukatu zen ekitaldia. Poliziek gelerazpen batzu egin zituzten.

15.— Bilboko kontserbategiko numerozko 8 irakaslek, bertako zuzendari den Pedro Pirfanoren dimisioa eskatu dute.

16.— Jesus Arrondo Marin "Koko Liso", eskuin punttako militanteak, Donostiako Parte Zaharreko elizan, pistola batekin mehatxatu zituen gose greban hertsirik zeudenak. ETA-n infiltraturiko hau, Hondarribian 1975.eko Maiatzaren 20an gertaturiko Jose Luis Mondragon eta Roke Xabier Mendez-en erhateen arduraduna da, Gipuzkoako amnistia-aren aldeko Komisioek azaldu dutenez.


17.— Azken bi hilotan, Bilboko portuan 400-500 langile, desenplegu seguruaren babesean daude, untzien karga eta deskarga lanetako gora-beherek krisis egin dutelako.

Igorren (Bizkaian) amnistiaren aldeko manifestazio bat abortatu dute goardia zibilek, eta geroago —zortzirik aldera— dantzaleku eta kafetegietatik kolpeka atera zituzten han zeudèn gazteak. Hauetariko bat, Jose Ramon Legarda, lurrean gertatu zen Elai Alai dantzalekutik irtetea hartu zuen kolpe batez, eta Gurutzetako ospitalera eraman zuten.

Gipuzkoak Jesus Arrondo "Koko Liso"-ren detentzioa eskatzen du. Berau ETAn infiltraturiko salhatari bat da.

Eskuin punttako 7, detenituak izan dira Iruinean.

Bi mila pertsona bildu ziren Ugaon, Txutxo Abrisketari ongietorria egiteko.



ABERTZALE
SOZIALISTEN
KONBERGENTZIARAKO
ELKARTASUNA
CONVERGENCIA
REAGRUPAMIENTO
ABERTZALE SOCIALISTA



18.— OCE-Bandera Roja delakoak, Euskal Era-kunde Herritarrean sartu nahia azaldu du, honen programagaiaz ados baitago.

Arabán, Obrascón-eko langileak —Bilbotik Zaragozarako autopista egiten ari direnak— lanik gabe geratzen dira, entrepresa hixtean.

Angeluko hondartzako bunker batetan, ihazko Apirilaren 4ean desagerturiko bi polizigizon espainolen gorpuak aurkitu dira. Jesús María González eta José Luis Martínez, Donostiako komisaldegikoak, kokotetik sarturiko balazoz hil ziren, auto-psiak erakutsi denez.

19.— Abertzale Sozialisten Konbergentziarako Elkartasuna-ren mahaiak eraturik geratu dira. Berau izango da talde independenteak eta zenbait alderdi, alderdi sozialista zabal batetan bilduko duena.

20.— Ernest Mandel, belgiar ekonomikari eta teorikari marxista, Bilboko "Sarriko" Fakultatean, "Langile mugimenduaren krisi soziala"-ri buruz hitzegin du. Trotskistek harrera ona egin diote.

Industrias Ondo-ko 11 langileak katengintzan ari den entrepresa honen barruan hertsu dira, botatzeei kontra egin nahiz honela.

Nafarroako Unibertsitatean, euskal kultur ziklo bat hasi da, Joxe Migel Barandiaranen omenez.

Eugenio Aldekoa Etxebarria, Ereinoko alkatea —1937.etik da alkate berau diputatutzarako presentatuko da.

"Atlas de Navarra" liburu saila aurkeztu du Caja de Ahorros de Navarra-k.

Iruineko Amaia kiroldegian, PCE-ren mitina (1.000 pertsona).

21.— Bilboko Kasillako kiroldegian, PNV-en mitina (10.000 pertsona) arratsaldeko 8'30etan hasita.

Estado de Excepción filmea, Oberhausen-eko (Alemania) laburmetraiazko zinema festaldira aurkeztu berri dute haren egileek. Irakurleak gogoratzen duke, beronen filmaketan Karlos Knörr Borrás, gasteiztar gaztea, detentatu zutela politiko-sozial brigadakoek, Diputazioko etxeari argazki batzu egiten ari zelarik.

Bizkaiko kristau komunitateen asanbladak, Euskadiko elizaren kontzilio bat eskatu du.

Arabán Obrascónek dituen langileak, berriz hasten dira lanean.

ETA V Asanbladako Daniel Antsoategi Etxebarria eta Imanol Mitxelena Loiarte kaleratuak izan dira.

Bremen-en (Alemanian) 200 alemaniar manifestatu ziren, eta Espainiako erregeren aurrean.

22.— Iruineko Txantrea hauzategian ikurrin bat ipini dute "Frente de Juventudes" zelakoaren aintzinako etxe baten dorretxoaren puntan.

Karlist Alderdiko 24 militante, geleraziak eta ondoren askatuak izan dira azken egunotan iragarriak itsasten ari zirelako.



23.— Gernikaren bonbazketa gaitzat harturik, bertako ikastolako haurrek egindako marrazki eta pinturen erakusketa.

24.— Gernikan, historiako mahainguru bat, Gartzia Kortazar, Ruiz Agirre-ko, Herbert R. Southworth, Anjel Viñas, Joseba Agirreazkuenaga eta M. Tuñón de Lara hizlari zirelarik.

Gallartan ANV-ek mitin bat egin du.

Beste mitin bat, "Fuerza Nueva"-k Bilbon, eta Blas Piñar hizlari. Gartsuki mintzatu zen ikurri-
na eta Aberri Egunaren kontra. Ondoren, handik ir-
ten zirèn batzuk jendea eraso egin zuten tiragomez
eta porrez. Ez ziren azaldu poliziak, "demokrazia"
zaintzen ari baitziren beste lekuren batetan.

Partido Socialista Obrero Español: Partido
Socialista de Euskadi-k hainbat mitin egin du: Ga-
llartan larunbatean, Basahurin, Gasteizen, Irunen,
Lasarten.

Barakaldon UGT-en mitina eta Sestaon
ORT-ena.

Errekalden (Bilbo) manifestazio bat egin da,
berdeguneen alde eta polykiroldegia eskatzeko. Be-
ronetan, 2.000 pertsona inguru bildu ziren. Mani-
festariak ba zeramatzen aiuntamentua iruditzen
zuten panpina batzu, eta erre egin zituzten azkene-
an.

San Mameseko football partidua, amnistia-
ren aldeko manifestazio bat izan zen.

Gorostitza, eskupilotari txapelduna, Ariño
IV-ari Logronion 22 - 12 irabaztean.

Portalden, 3.000 pertsona bildu dira Amnis-
tiaren aldeko Ibilaldiaren Bizkaiko Komite Antola-
tzaileak eraturiko jaialdian. Ondoren, 5.000 pertso-
na manifestatu ziren kaleetan zehar pankarta eta
ikurrinekin.

25.— Valentzian, Taula de Forces Politiques i Sin-
dicals del Pais Valencià-k antolaturik, Pais Valen-
cià-rentzako Autonomi Estatutuari buruzko mitin
bat egin da. Gerlaostean egiten den lehena.

Gernikan, bonbaztapenaren 40. urtebetetze
barruan, gaur, Joseba Elozegi eta Jon Beistegi guda-
rien komandanteek eta Antonio Ozamiz eta Andre-
sa Idoiaga herrikideek hitz egin dute.

26.— KAS (Koordinatzaile Abertzale Sozialista)
Euskal Kostalde ez-nuklearraren alde azaltzen da
osoki, agiri baten bidez, eta Iberduero S. A.-ren jo-
ku ezlegala salhatzen du.

Gaur berrogei urte, GERNIKAN:

BOOO MMMM. Boom, booommmmm, boooomm,
booommmmmm, booommmmm, booommmmmm.

MAIATZAREN 1.AREN. HISTORIA LABURRA

USAko Milwaukeeen 1.866.eko Maiatzaren 1.aren egon zen polizia eta langileen arteko burrukaren ondorioz bederatzi hil gertatu ziren. Egun haietan langile mugimenduak izugarritzko indarra hartzen zuen. Zortzi ordutako egunbeteko lana lortu nahi zen, normalki hamabi, hamalau eta hamazortzitaraino egiten baizuten orduan. Langile askok ez zituen inoiz beren seme-alabak egunez ikusten.

Urte hartako Maiatzaren 2.aren arratsaldean, burrukaldi batetan zortzi mila manifestarik poliziak harriatu zituzten. Manifestazioan zeudenen artean tiro batzu atera omen ziren eta une labur batean gatazka bat bilakatu zen. Poliziaren erantzun gogorak sei hil eta berrogeitamar zaurtu baino gehiago egin zituen.

Langileen haserrea handia izanik hurrengo egunean meeting bat ospatu zen, eta polizien erasoari erantzuteko harmak eramatea gomendatzen da, baina —azkenean— eta indarren ezberdintasuna kontutan harturik, harmak ez eramatea kontseilatzen da eta meeting-a, nahiz eta giro berotu batean, lasai eta indarkeriarik gabe pasatzen da.

Hamabost milako pertsonen aurrean langile batzuk hitz egiten dute. Bakoitzak nahi duen erara hitz egin ondoren eta meeting hori bukatuta, jendea alde egiten ari denean polizia indarrez sartzen da eta karga bat egiten du.

Karga hura hasi bezain laster, bomba bat botatzen da poliziengana; hauetariko zortzi hiltzen dira eta hirurogeitamar lurreratzen. Ikara handia zabalitzen da eta bizirik dirauten poliziek, errefortzu gehiagorekin karga basati bat egiten dute, ondorioz ezin kalkula daitekeen masakrea eginez. Chicago setio egoeran jartzen da eta armadak kaleak okupatzen ditu egun batzutan. Polizien azterketak ezin ditu egileak identifikatu, baina parada hau kapitalistek probetxatzen dute iraultzaile batzu salhatzeko, kapitalismoaren interesei holakoxea komeni zaielako. Zortzi langile hauzitan sartzen dituzte exenpluzko prozesu bat egin nahirik.

Klasearen prozesu bat

Klasearen prozesu lotsagarri batek hiltzera kondenatzen ditu zortzi iraultzaile hauk, hauetariko hiruri zigorra ordezkutzen zaie. Fiskaleak, zeinen egiazko asmoa errudunak nola edo hala aurkitzea

baitzen, egia kontutan hartu gabe, probak muntatzen ditu eta judiziora lekuko faltsuak ekartzen ditu. Epaimahaikoak kontu haundiarekin hautatuak izan ziren eta partaide guztiak jarki ziren, eskari hau ukatzen.

Kondenatuetako iraultzaile batek exekuzioa baino egun bat lehenago bere burua hil zuen besteak salbatzeko esperantzarekin, baina 1.887.eko Hazilaren hamaikan —gertakari honetatik ia 19 hilabete pasatu ondoren— beste lau iraultzaileak urkatuak izan ziren. Haien gorputzak zintzilizka geratu ziren airean, begiak betzuloetatik kanpora eta ahominak dilindaka, jendearen oihuen artean, gartzelatik kanpoan poliziari aurrera ematen ziolarik, Klaseen burruka hasita zegoen.

Egunbeteko zortzi ordutako lana lortzeko Chicagoko langile herriari egindako dei honek ondorio odoltsu bat eduki zuen, eta kapitalistek sortu zuten egoera horretatik ateratzeko atzera pausu bat ematea ezina zen.

Herrien arteko solidaritatea oso makala zen eta bidegabekeria horrek ez zuen erantzun egokirik. Sarritan herri bakoitzeko burruka bereziak, une historikoak ahantz erazten ditu, erantzun sendo bat eman beharrean. Maiatzaren 1.a Historiara pasatuko da langile guztien eta hauen errebindikapenen egun gisa eta hau, nahiz eta lekuko baldintza asko egon, ezin daiteke ahantz.

Beranduko damuak

Urte batzu geroago, Amerikako burjeseria, John Altgeld, gizon osoa, Illinois-eko gobernariak zaplaztatua izan zen. Ikerpen luze bat egin ondoren kondenatuen errugabetasunak konbentzitu zen. 1.893.an agiri batzuetan prozesu horren irregularitasun guztiak argitaratu zituen eta judizioaren erabakia agindu bat betetzeko emana zela agertu zuen. Historian aurregabeko izugarrikeria berau.

Ondorioz, Fielden, Neebe eta Schwab askatasun osoan geratu ziren, espetxean zazpi urte egon ondoren. Bost urkatuei buruz, publikoki xurituak izan ziren, baina ezinezkoa zena bizitza ematea zen.

Karlos



GERNIKA EGIAREN BILA



Hainbat ospakizun egin dira Gernikan azken egun hauetan, 1937. urtean egindako bonbaketatik 40. urtea betetzen baitzen Apirilaren 26an. Hainbat histori-jakintsu gonbidatua izan da, gai honetaz bere ezaguerak Gernikan agertzeko. Apirilaren 23an, "Cine Social"ean egindako mahai-inguru batetan, Viñas, Tuñon de Lara, Southworth eta Ruiz de Aguirre historialariek izugarritzko bonbaketa haren erresponstabilitatea elkarrekin bilatu —eta bai aurkitu ere— zuten mila bostehun lagunuen aurrean.

Agirre jaunak, euskal gudarostearen komisari nagusia bezala, ondo ezagutzen zuen gudari taldeen osatzea eta gai honetaz hitz egin zuen. Nahiz eta gudarien talde bakoitza zuzenean politik alderdien lotura herstua izan, gudari guztiek, bai "gorriek", bai jeltzaleek elkarrekin borrokatu zuten eta, Agi-

rrek zioenez, "beretzat guztiak berdin ziren". Gudarostea edo armada 79 batailoiz osatuta zegoen. Hauetatik 49 PNVrenak, eta sozialistak, komunistak, CNT-FAIkoak, errepublikarrak, ANVrenak eta "Jagi-Jagi"koak beste guztiak. Militar profesionaririk eza izan zuen armada hark eta gudariak lortutako arrakastak kemenez lortuak izan ziren.

Tuñon de Lara jaunak bonbaketa epe hartako kontextu barruan jarri zuen. Italiarrak Guadalajaran sufritu zuten lotsagarritzko porrotaldiak eta Madril hartzeko ezinak, arrakasta bat behar zuten orduan eta, honetarako, espainiarrek hitleriarren laguntza osoa eskatu zuten, Iparraldeko lurraldeekin kontrolpean jartzeko. Gernikako deuseztapena laguntza sendoago honen lehen urratsa izan zen. "Legión Condor"-eko hegazkinak osorik Franco

EUSKAL HERRIAN

eta Molaren agindupean jarriak izan ziren eta bai Molak euskal hiriak deuseztatzeko zituen asmoak egiteetara eraman ere. Irun, Durango, Gernika eta beste zenbait lekutan, Molaren aginduak segituz, germaniarrek beren "probak" egin zituzten, su-emaile bonbei buruz, batez ere.

Viñas-ek, germaniar militarren artxiboetan aztertu ondoren, bonbaketa hura egiteko erabakia Salamancan hartu zela esateko proba asko daudela esan zuen. Germaniarrek Molaren nahiak onhartu zituztela argi dago, nahiz eta, bonbaketaren ondoren, munduan izandako erantzun gogorra ikusirik, "Condor"-eko militarrek Berlineko beren buruen aurrean Gernikako deuseztapen osoa ez aitortu.

Southworth iparramerikarrak, bonbaketa honen munduko prentsan izan zuen irudia aurkeztu zuen. Anglosaxoniarrak egia ezagutu zuten prentsa bidez eta erantzun gogor bat eman zuten. Frantsesek, berriz, "Havas" agentziaren bidez, ez zuten egia jakin eta Espainiako "nazionalek" euskaldunen kontra egindako salhaketa ezagutu zuten. Bonbaketa faxista ideologiaren ondorio hutsa bezala agertu zuen Southworth-ek.



LEKUKOEN SAIOA

Bonbaketaren lekuko izandako lau lagunek beren ikuspuntuak agertu zituzten astelehenean, Gernikako Institutuan egindako saio batetan. Bi mila lagun aurrean Andresa Idoiak, Joseba Elosegik, Andoni Osamiz eta Jon Beistegik egun hartako gertaerak kondatu zizkiguten, Joseba Elosegik ezik, beste hirurek euskaraz. Andresak egun hartako eta hurrengoetako larritasunak biziki kondatu zituen: Jon Beistegik Gernika "harmategi" bat zela esaten dutenen gezurra salhatu zuen, Gernikara



gudariak atsedean bat izateko bakarrik joaten baitziren. Andoni Osamiz, gernikar euskaraz, jatorri kondatu zizkigun bere gertaera eta larritasunak: "Bonbaketa ikusi ondoren, beste guztiok eta ni lelotuak bezala geunden, nora jo eta zer egin jakin gabe. Hantxe bertan hil zen zenbait gipuzkoar lagun on: Gipuzkoatik ihes egitean, Gernikan gure lagun onak bihurtutako gipuzkoar on haik". Joseba Elosegik, bere aldetik, hitzaldi eder bat egin zuen erdaraz, egun urrun hartako zenbait zehaztasun emanez. Saio honen barruan ere Picasso familiak bidalitako telegrama bat irakurri zen. Telegrama honen bidez Picassoren alargunak eta pintatzailearen sei sema-alaba Gernikako herriari buruz sentitzen duten solidaritatea agertu nahi izan zuten. Beste idazki baten berri ere eman zen: idazki honen bidez, gaurko Espainiako gobernuari, Francok euskaldunen kontra egindako salhaketa —hots, Gernikaren deuseztatzaileak izan zirela— ofizialki uka dezala eskatzen zaio, Espainiako Artxibo Militarrak ikertzaileentzat irekiak izan daitezela eskatzen zaion une berean.

Saioa amaitzeko, Telesforo de Monzonek grabatutako hitz batzu entzun genituen eta "Batasuna" kantatu eta "Presoak kalera" oihu egin ondoren, bukatu zen.

MARRAZKIAK

Gernika eta inguruetakoko ikastoletako umeek, bonbaketari buruzko ehundaka marrazki egin dituzte. Gernikan marrazki hauk ikusi genituen, bereziki egindako agerketan. Adin guztietako ume hauek, bonbaketari buruz, ideia oso argiak dituztela, eta bai bere herriaren deuseztatzaileak nortzu izan ziren dakitela ere agertzen zaigu. Ume hauk izango dira, etorkizunean, gaur egiten ditugun eskabideen jarraitzaileak eta, gaur ez baldin bada, bihar, bai Gernikak eta bai mundu guztiak, egia osoa jakingo du bonbaketa hartaz.

X.A.



OROITUZ

Ugari izan dira Gernikako bonbaketari buruz idatzitako liburuak. Historia arlokoak izan dira batzu, literatura hutsekoak besteak. 1937. urteko Apirilaren 26an jasotakoa izan dute guztiok iturburu bezala. Gaur ez ditugu liburu hauetariko batzu aztertuko. Iturburu horretatik sortutako lehen tantak bakarrik jasoko ditugu eta, gainera, euskaraz idatzitako lehen tantak.

Nola jakin zituzten euskaldunek, beren hizkuntzan, Gernikako lehen berriak? Hurrengo lerroetan "EGUNA" jeltzale agunkarian irakurritakoak aurkituko dituzue. Idazki haietan erabilitako idazkera eta grafia errespetatuko dugu, egun haietako euskarak zuen agerpena interesgarria iruditzen baitzaigu.

"PAXISTEN EGAZKIÑAK"

"Eguna" egunkaria ez zen bonbaketako hurrengo egunean agertu, "azken orduko eragozpen batzukaitik", egunkari berean idazten duten bezala. Hots, 28an izan zuten euskaldunek bonbaketari buruzko euskarazko lehen berriak.


Izenburu edo titulu handiak erabili zituen "Eguna" k berri gogor hura emateko:

Paxisten egazkiñak
GERNIKA, EUZKOTARREN URI MAITEA,
BIRRINDU NAI IZAN DABE ZEARO

— Aritza zutik gelditu da, ordea, ondamendi ofetan.
Zutikago euzkotaren gogoia, baña

Izenburu hauen ondoren, horrela zioen euskal informatzaileak:

EUSKAL HERRIAN



Lgo. urtea | 100'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'

PAXISTEN EGAZKIÑAK

Gernika, euzkotañen uri maitea birindu nai izan dabe zearo

Aritza zutik gelditu da, ordea, ondamendi orelan.
Zutikago euzkotañen gogoa, baña.

“ Biamonean ere, ketan egon dira etxe asko,
“ osoro efe arte, zeatz birindu arte gizonen gaiz-
“ takeria agertzen bai'legozan.

“ GUDOÑETATIK URRUTI
“ Aratsaldeko lau ta erdiak aldean agertu zan le-
“ nengo egazkiña Gernika gain, eta kanpaiak jo zi-
“ ren. Orduan jendeak gordelekuetarantz egin
“ eban.

“ Egazkin bakar ofek bomba batzuk bota ondo-
“ ren alde egin eban. Baña ba-ebazan lagunak be-
“ bere atzean. Berealakoan beste bat agertu zan
“ eta urango beste bat eta geyago eta geyago bana-
“ ka. Suagaketa eta eizeko egazkiñok ogei bat bil-
“ du ziran eta jo ta ke bonbak botatzen asi ziran.

“ Gernika osoan, alde guztietan bomba eta sua-
“ gak besterik eziran izan iru lau orduan. Bazter
“ guztiak sutan eta jausten asi ziran berealakoan.
“ Etxe eta elizak gafetan jafi ziran. Jon Deuna elei-
“ zaren goirik ezan agiri, su eta ke artean. Uriaren
“ erdi alde osoa eta inguruak sutzar egiñik laga zi-
“ tuen.

“ Illuntzera arte, ordea, egazkiñak eurenari ekin
“ eutsen. Lau ordu luzetan botatako suagak zen-
“ bat izan diran ez dogu jakin, baña uri ezereztuak
“ argi asko agertuko dau munduaren aufe gudoñe-
“ tatik uruti dagon uri egegi bateri egindako eraso
“ zitala.

“ GORROTOAI!
“ Bizkaya-ko beste uri eder bat ezereztuta ta bi-
“ rinduta utzi dauskue paxistak. Atzokoan Tabira
“ zan goizean goiz unetxo baten zuzituta laga ebe-
“ na; arañegun, ostera, Gernika, euzkotañen uri
“ kutun, leku maitagañena triskauta idoro dogu.
“ Ez kalerik, ez etxerik, osorik laga dabe paxis-
“ ten egazkin madarikatuetao bomba edentsuak.
“ Bideak apuñtuta dagoz eta keia, autsa eta nege-
“ ra baño ez dogu aurkitu, ondamendi ondorean.
“ Gernika-ra arin bañi ariñago jo dogunean.
“ Euzkadi'ganako gofotoa egundo ez dabe ezku-
“ tatu ez gorde, eta oraingoan euren indar osoa
“ agertu izan dauskue gofoto ori.
“ Eriotzea euzko-erri osoaz jaubetuteko alegiñe-
“ tan ari dira, baña euzko-erria ena da orain ere, ez
“ da aldatu eta egingo ere ez.

“ LAU ORDUKO SUAGAKETA
“ Etxe gitxi gelditu dira ikutu barik Gernika'n.
“ Alde geienetan jausi ziran bonbak eta etxe ta
“ eleiza, ibiltoki eta gexoetxeak zuzituta gelditu
“ dira geyenak.
“ Eleizak ere su ta gar agiri dira, keia ta odola
“ besterik ez dabela. Lertzeko bomba pillak jaur-
“ titzen ekin eutsen egazkiñak, gero, su-emaleak
“ ere ugari bota zituzten eta uria ezereztuta laga
“ eben zearo. Alde batetik bestera Gernika illetz
“ mutaldua dirudi.



“ ONDORENAK

“ Gau lenean su artean argi egiten eban efi are-
“ tako etxeak. Agindariak beingoan asi ziran bear
“ beaferko lanetan. Jaurilaritzako burukide batzuk
“ antxe ikusi genduzan. Bilbaotik bonberu-taldeak
“ joan ziran eta Ertzaña'koak eten barik ziarduen
“ batera eta bestera.

“ ILLAK

“ Lantxo au egiten diardugun unean, illak izan
“ diren notiñen eferkada osotuteko daukela esan
“ daukue Efi-Zainketan.

“ Ez dakigu ziur zenbatgiño izan diran illak us-
“ te-uste bako suagaketa ofetan. Eferkada luze sa-
“ maña izango dala deritxagu, edozetara be; alaba-
“ ña, eña ikusita bakañik emoten daben beste ez al
“ da izango. Eferkada orixe artu baizen laster argi-
“ talduko dogu, baña.

“ Paxisten egitada deunga onek bein beñiro min-
“ du gaitu bañu-bañuan. Ainbat baserri ta uri bñin-
“ du ondorean, efi zoragaña ondatu daukue, euz-
“ ko azkatasun ikuña dauan lekua, euzkotañon
“ aritz donea!

*Amaieran zaurituak izan zirenen 27 izen ager-
tzen ziren zerrenda batetan.*

GERNIKA!

*Eta, berria emateko lan horren ondoren, senti-
menduz beteriko bat agertu zen "Eguna" egunka-
rian, "Uzturre" k izenpetua. Izenburu bezala
"¡Gernika!". Hona hemen lantxo haren hitzak.*

“ Inpernua zirudin Gernika gureak gauaren
“ illunean. ¡Bizi geran arte gure baitan izango dan
“ irudi negargaña!

“ Sugar ikaragarriak zijoazten luferetik zerura.
“ Oñaze nabarmenaren agerpen ziran sugarrak. Efi
“ baten azkenatzaz mintzo ziran sugarrak. Efi ba-
“ ten eriotzatzaz mintzo tristean ari ziran suga-
“ rrak.

“ Alboetako mendiak mamofutzafak iduri. Di-
“ ran bañore milla bider aundiagoak ziruditen. Sua
“ zan efergin. Ondamendizko sua, jaun ta jabe. Efi-
“ aren alde batetik bestera suaren eresia besterik
“ etzenun entzungo. Sua... sua... sua...

&&&&&&&&&&

“ Auñak etzizuten non etzan. Gurasoen begiak
“ negaferz beteak ziran.

“ - ¿Non dira gure etxeak? ¿non gure sukaldeko
“ epela? ¿Non gure semetxoeren oitxoak?

“ Amona zartxoeren larria...

“ - ¿Nora joan bear gera? Emen jaio, emen azi,
“ emen bizi... eta orain nora?

“ Nonai emakumeak, gizonak, auñak, aitonak
“ erotu beaferko zorian.

“ - ¡Nere semea! ¡Ene...! ¿Non zakust maite?

“ - ¡Jaun aundia! ¿Ikusi al dezute nere emaz-
“ tea? ¡Jauna, jauna!

“ - ¡Aitatxo, aitatxo! ¡Aitatxo nai det! ¿Non
“ da aitatxo?

“ Bein bitartean, suak izala gorde zien gaxotegi-
“ an, egazkinlarien begiek jo etzituen gaixotegie-
“ tan minkañaxiak sartzen zitzaizkizun beañietatik
“ baña.

“ ¡Gernika! Bizi geran arte gure baitan izango
“ dan irudi negargaña.

&&&&&&&&&&



“ Aalik izan banu, Gernika zafa sutegi bat zan
“ garaiean, bertara erakañiko nituan mundu guziko
“ euskoak. Eta gisa ontara mintzatuko nintzaien:
“ - Auxe zenuten Gernika, gure azkatasunaren
“ irudi den eña!

“ ¿Nork eman dio su? Eusko batek ez beñepein.
“ Zuetako iñortxok ez luke adorerik izango. Nor-
“ baitek efer du...

“ - Eusko-luferetik etofiak ziran apika Gernika'ri
“ su eman dioten zenbait egazkiñ. Baño egazka-
“ riak etziran euskoak. ¿Edo, euskoa endakatua
“ ote da zearo?

“ - ¡Baño ez! Eusko guziak ukabillak jasota
“ izango dira une triste oietan. Gernikari su eman
“ diotenak ez dira euskoak. Doixtar eta italiañak
“ dira. Espanañak saldukeriz erakarri zituzten
“ doixtar eta italiañak...

“ Euskoak... eta orain ¿zer?

“ Gauaren illunean, Gernika sutegi bat zan bi-
“ tartean, dolarez negar egingo zuten mundu guzi-
“ an banatuta diran euskoak...

Gure prentsa behar dugulako



Geurea:
Bertako arazoak,
bertako ikuspejiz aztertuz



Askea:
Erriak bakarrik ertsatuko duena



Egibera:
Dana dan bezela zeatz esanaz



Gaurkoa:
Igaroa, oraina ta geroa
gaur-neurrietan erabiliaz

DEIA

Gure lurraren

Gure lurraren deia



ESAM.

Erriberako Sozialista Abertzale Mugimendua

Nafarroako Erriberako bizilagunak, bere ohi-turen zale, antonomasiak nekazari, batzu foruzale, beste batzu karlista, jende apala eta langile da, eta nafar-nafarrak bezala kontsideratzen dira. Gehienak bi, hiru eta lau mila bizilagunen herrietan bizi dira, Tuter eta Tafalla izan ezik, bi herri hauetan industrigintza nekazaritza baino garrantzitsuagoa delako. Gaur egunean Erriberako bizilagunek hiritarrei ez diete ezertaz inbidiatzen, nahiz eta askok Bartzelona, Madrile eta batez ere berauen Euskal Herriko eskualde industriaiztatuetara joateko behar-ua izan zirenak gogoan eduki oraindik.

Politika eta kulturaren aldetik, azkenaldi honetan Erribera gure Herriak daraman trajektoriatik baztertua izan da. Egite honetan Nafarroako Diputazio Foralak funtsezko zeregin bat bete du, —gaur erriberatar guttik berarenganako sinesgarritasuna gordetzen duela esan dezakegu—, herri guzti hauek, Nafarroa guztia bezala, sufritu duten zapalkuntza-aren erruduna Diputazioa da, promes lainotsuekin engainatu baititu; adibide bezala, hor dugu Nafarroako kanale famatua duela hogeitahamar urte egingo zutela entzuten hasi ziren nekazariak, oraintsu Bardeetako problemarekin, Madrileko gobernuari inposatzea nahi izan ez dutela, eta Nafarroako autoestrata, nekazari ezinbesteko desjabetzea inposatzen eta prezio irigarrietan.

Sozialki, Diputazioa eta herrietako jauntxo haundiak dira, modu batez edo bestez, bizimodu konkretu baterantz bizilagunak kontrolatu eta zuzendu dituztenak, aurrerabide herritarra suposatzen zen guztia eta beren interesen kontra zegoen guztia ezabatuz. Hitz batez, nekazarien arteko nor-

berekeria eta hauzo lana egiteko mesfidantza bizkortu dute, eta ondorio bezala, zegoen kooperatiba asko pikutara joan da eta beste batzu suntsituko dira, hauen lekuetara kapitalistaren eskutan dauden lantegi kontserbagileak etorriko dira.



**TRIGO SI
BOMBAS**

NO !!



**BARDENAS
E.S.A.M. PARA EL PUEBLO**

Gaur Nafarroako Erribera esnatzen ari da, eta frogaz bezala, hor dugu jaioberri den eta izugarrizko gorakada hartzen ari den mugimendu abertzale hau. Nafarroako KASEk, bere erriberatar jatorrizko militanteen bitartez eta eskualde honetako problemak ezagutzuz, mugimendu honen sorrera interesgari bezala hartu eta bultzatu du. Autonomia osoa du eta ehun militante baino gehiago ditu. Laster batzarre nagusi bat antolatuko dute eta hor beren estatutuak idatziko dituzte.

ESAMek duen egiteko barrutia Erribera da, eta batzuk Erribera kontsideratzen duten Nafarroako erdialdeko herri batzu, Iruineako arroa, nahiz eta Goi Erribera izendatu ahal izan, herri hauk Biana, Sesma, Lerin, Larraga, Tafalla eta Zarakaztelutik Zaragoza eta Logronioko probintzien mugetaraino daudenak dira.

ESAMek, gure Herrialdeko KASEn inizatibagatik eta bere Nazional Alternatibarepoean jaioa, eskualde honetako klase herritarrak eta hauek dituzten problemak (nekazariena, Bardeak, gure kultura eta hizkuntza...), eta perspektiba abertzale batetik lan egingo duen mugimendu bat izan nahi du, bide batez Euskal Herriko eskualde honetan hain ahan-tzirik den problema nazionalaren kontzientziatzaile izanik, "Erribera Euskadi da" lemapean.

Joseba.



ESE donostiako E.U.T.G.en

ESEIren agerpena egiteko, mahai bat antolatu zen E.U.T.G.ko Paraninfoan apirilarenean.

Presentazioa, euskaraz eta erdaraz, neska batek egin zigun. Eta besterik gabe, Juan Ignacio Intxaurreaga ESEI nola sortu zen eta nondikako pertsonak osatzen zuten mintzo zitzaigun oso laburkiro, erdaraz eta euskaraz. ESEI batik bat, jende independenteengandik, ETA ingurukoengandik, ELA eta PNV aurrezaleengandik, e.a. osatua da.

Ondoren, Goyo Monreal nafarrak hartzen du hitza erdaraz, eta bere jardunaldia luze eta nekagarria gertatu bazen ere, mamitsu izanki, eguneko Euskal Herriaren egoera sozio-politiko oso sakonki aztertu zigun. Euskal naziotasunaren berezitasunak aipatzean, kontradizioz josiak eta bere homogeneitatekerik ezar azaldu zizkigun. Kataluniak eta Galiziak, adibidez, ba dute kalean nagusi den

hizkuntza bat (Euskal Herrian 25 o/o-takoa soilik da), ba dute hiriburu benetakoa, Unibertsitate Barrutia, eta Eliz Barrutia ere, Euskal Herria alde guztietatik zatikatua aurkitzen delarik.

Beraz, ondorioak ere desberdinak dira. Euskal kontzientzia desberdina dute, alde batetatik, Gipuzkoa eta Bizkaiko euskaradun zati handi batean, eta bestetik, Nafarroa, Araba eta Bilboko ezker aldean. Eta ezin dakioke arazoari tratamendu orokorrik eman halako desberdintasunean. Bestalde, errealistak izanki, PSOE, PC eta beste ezker estatalistekin kontaktu beharra izanen dugu, nahi eta ez, hauek gerraurretik errotuak baitaude Euskal Herrian, eta ukaezinezko indarra dute bai estatu mailan, bai europar alderdiak direlako. Beraz,



hauek ere erakarri beharko ditugu, autonomia bat eratu ahal izateko. Gaur egun ez da posible, autonomia bat, ez eta abertzale batasunaren bidez ere; eta aipaturiko estatalistekin, berriz, posible da. Ezker abertzaleok PNV-k jaso ditzakeen alternatibak aurkeztu behar ditugu, eta ondoren, ezker estatalistekin autonomia posible bat eratzera jo.

Sozialist Alderdirako ohinarrizko puntuak

Honetaz Mikel Zabala, hernaniarra, aritu bazitzaigun ere, eta erdaraz, ESEIren Agerpen horritik zuzenki jasotzen ditugu puntuok:

a) Sozialista behar du izan egiazki, hau da, Euskadiko ekonomi, sozial, kultur eta politik egituren eraldatze iraultzailea posible egingo duen tresna, hots, ideologikoki eta organikoki egokia; beste masa erakundeekin batera, klaserik gabeko gizarte baten eraikuntza aurrera eramanez, produktzio indarren eta agintearen benetako jabetza eta kontrola izango du.

b) Historiaren eta gizarte eraldatzearen azterketarako marxist metodologia erabiliko du.

c) Klase nortasuna agertu behar du, sozialista giroko jatorria duen militantegoa osatzean, taktika eta estrategiaren adierazmoldean eta bere politik praxisa betetzerakoan. Beraz, masa alderdi baten jitea hartu behar du.

d) Argi eta garbi errespetatu behar du masa erakunde sindikal eta herrikoien autonomia, sozialismorako estrategia zuzen bat eta gizarte sozialista aske, pluralista, berdintasuneko, deserdirakoi bat gerorako finkatuz.

e) Alderdi demokratikoa behar du izan, baina ez soilik askatasun konkretu eta mamitsuen onhartzetza eta defendatzearen espresabide, beraien aitzindari izan baita maiz gure Herria Europako historian. Askatasunaren erabilketa osoak, gizarte eta ekonomiaren plangintza demokratiko batez sendoturiko autogestiorik zabalena eskatzen du langile-riaren eskuetan.

Alderdiak bere egitura eta jokamoldean, eraiki nahi duen gizartearen imajina behar du izan, eta dogmazko kutsurik gabea; sozialista diren talde guztiak egiazki uztartzeko eta talde horien planteiamolde teoriko eta praktikoa lortzeko kapaz izango dena. Demokraziaren eraginez, eta Euskadiko lurralde osaketa berezia medio delarik, Alderdiak konfederal erako egitura organiko batetara beharturik geratzen da.

f) Estatu mailako ezker taldeek darabiltzaten era berdinean erabiliko ditu sistematik lor ditzakeen politik posibilitateak.

g) Internazionalista behar du izan, sozialist iraultzarekin eta munduko herri eta nazio guztiekin, bereziki penintsulakoan hazkuntzarekin bere indarrak bat eginez.

Jose Manuel Castelek Autonomi estatutuak jasotzeko beharko lituzkeen zenbaitzuek puntu aipatu zituen laburki eta erdaraz.

Bai eta Politika fiskalari buruz ere mintzatu zitzaizkigun mahaitik. Lurraren Ordenazioaz eta Lurraren kontrolaz (ez sozializatzeaz) eta ekonomiazko plangintza baten beharraz. Oraingoz behintzat, ez ziren sozializatzearen aldeko agertu, langileriak benetako partehartze eta kontrol ekonomiko bat iritsi dezan arte.

Azkenik, Josu Etxano euskal kulturaz euskarara hutsuz mintzo zen. Erdi epe batean euskara Irakaskuntzan, Administralgoan eta Komunikabideetan ezarri behar dugula zioen, bai euskaraz hitz egiten duten lekuetan, eta bai euskarara galdu diren eretan ere.

ESEIko mahaiaren agerpena laburtzeko, ezin esan ESEIren jarrera baterakoa hondradua ez denik. Euskadiko Sozialistak Elkartze Indarra baita ESEI. Eta ez da alderdi bat, Alderdi sozialista zabal eta posible batetara bultzatzeko erakunde bat baizik, "hain zuzen, euskal ezkerren barrutian agertzen den hutsunea nabaritu ondoren sortu da, izaki konbergente eta sozialista bilakatu nahiz".

Gaurko euskal ezkerren zatikeria, protagonismokeria, eta erradikaleriak gaintzeko posible, errealista eta oinak lurrean ditugarik, berresaten zuten, erakunde bide bat delako Alderdi sozialista hori. Eta erreboluziozalekerietan erori gabe, pausoz pauso, erreformaz erreforma eta une bakoitzean posibilitateak izanki, azkenik guztion helburu den iraultza egin daiteke.


Baina, elkar hizketan aidean gelditu zena, zera da, erreboluziozalekerian eror baledi, erreformazalekerian ere eror litekeela. KAS-en inguruan talde desberdinek eratzera doazen alderdi sozialista zabalago horrekin harremanik zuten edo nola ikusten zuten galdetu zitzaizkionean, Goyok erantzun zuen alde batetik ez zirela gonbidatuak izan, eta bestalde ez zeudela ados zeramatzen metodologiarekin.

Entzule batek, mahaiako proposaturiko sozializatze (edo eza) eta politika fiskala Fraga-rena baino motzagoa geratzen zela eta, erreformazalekeriatzat jo zuen.

Dudarik ez da, Euskadiko Sozialistak elkarretarako indarraren premia handia dugula, eta ezker abertzale guztion eginkizuna dela. Beharbada, Alderdi pare bat aterako zaigu, bat erreboluziogileago eta masa mugitzailea, eta bestea, guztiz posiblerik eta gainerako indarren mugimenduari lotuago doana.

Alex

EUSKAL HERRIAN



hauzategiak

HAUZO ELKARTEAK KRISIAN?

Donostiako hauzo elkarteek, duela bi urte sortu ziren, eta diktaduraren zapalkuntzapean aritzeko legebide egokia eta positiboa zen, dudarik gabe, hauzoetako herrigintza batetarako. Garai hartan eratu ziren estatutu araudiak, ordurako oso baliagarriak ziren. Alde batetatik, hauzo elkarteak batzarrea, lehen organoa izanki, ohitu eta ikasi gabea zelako, noski, hauzo elkarteetako junta edo batzorde eragileek zeramaten ia erabatean hauzo elkarteetako martxa edo jokabidea; eta asanbladak sozioek partehartzeko eta erabakitze baina gehiago, batzordeen informazioa edo berri ematea gertatzen ziren.

Bien bitartean zenbait hauzo elkarteetako juntak, batik bat, M.C.-k (geroago P.C.-ko legezale batzuk ere bai) erdi kontrolaturik geratu ziren.

Gaur egun, ordea, gauzak aski aldatu dira, eta askatasun itxura sumatzen denez, estatutuek ezartzen edo mugatzen dituzten urtaroa; adibidez, 21 urte behar baitira sozio osoa eta boto eskubidea izateko, hauzo elkarteek gazte mugimenduekin gaiturik aurkitzen dira, hauzo elkarteak ekintza lanak eta erabakiak hartzerakoan.

Baina, hasieran junta aurreratzailerik ziren haiek, kasu batzutan behintzat atzeratzaile eta erreformista bilakatu dira, eta estatutu zaharrei heldurik gazte ekintzaileei boto emateko bideak moztu zaizkie. Beste hainbeste esan daiteke, batzarreak irekiak behar dutela izan planteatu denean, batez ere, kaleko gertakizun berezien aurrean posturak hartzerakoan, e.a.

Hau guztiok eta Itxasoko erhalketa, Aristizabalen heriotzea eta ondorengo manifestazio sailek ere, tirakada eta eten gogorrak sortu dituzte Amara

Berriko hauzo elkarteak, adibidez. Eta arazo hauek gorabehera, desegin ziren Atotxa-Egia eta Intxaurrondoko hauzo elkarteak. Gorago aipatu bezala, junta zuzendaritzako zenbait legezalaren erruz urratu dira hauzo elkarte horietako plataformak. Jakina, junta horietako batzuk nahiago dute esan, ezker abertzale, komite eta troskistak hauzo elkarteak hautsi beharrean dabiltzala, berak arrazoidun, legezale eta ekilibrista onak izanki. Baina, egia esan, hauetako legezale batzu hauzo elkarteak kontrola beste pentsamoldeko jendearengana doala ikustean, gehiengoaren kontra jarriz, estatutuen interpretazio xebreak eginez, nahiago dute hauzo elkarteak krisian jarri edo desegin, beste joerakoan esku txarretan uztea baino.

Hala ere, hauzo horietan jende ekintzaileek ez dira lotan geratu, eta bere aldetik diraute lanean. Hauzo batzutan, sekula baino hauzo batzarre zabalagoak eta eragileagoak antolatu izan dira.

Beste hauzo elkarteetan hainbestearino iritsi ez bagara ere, problematika hori berori egosten ar da. Hauzo elkarteetako junta batzuk base gehiago dute hauzoan, eta hauzo eta Herri burruka oso batera daramate, hauzo elkarte mugimendua alderdi baten arauera murrizten ibili beharrik gabe.

Bestalde, azken urte honetan, ezker abertzaleok geroz eta gehiago eta organizatua agertu gara hauzategietan. Eta zer esanik ez, ezker abertzaleon artean apenas ageri den hain posibilista diren elkarte erreformistarik, KASen inguruko jokabidearekin ados gatozlarik. Itxarogarria da, beraz, ezker abertzaleok masa mugimendu bezala dugun aurrerabidea.

Alex.



hauzategiak

Amara Berriko Hauzo Elkartea eta Kontribuzio bereziak

Amara Berria, Donostiako hauzategirik handiena da, gaizki esan dut, jende gehiena, 50.000 lagun bizi edo gordetzen dituena. Etxagintza eta espekulapen lotsagarri batek eraikia, etxateria multzoak, belardi zikin bakarra ertz batetan, autoz estaliriko kaleak; hauxe bai dela "lotarako hiria".

Amara Berriko arazoa beste edozein hauzategietan bezala, guztiekiko zerbitzu falta da, hau da: hartzaindegiak, E.G.B. gisako herri ikastolak, gau-eskolak, liburutegiak, kultur etxeak, Zahartzaroko etxeak, belardiak, parkeak, aparkamenduak, e.a. falta dira. Hauzoko hirigintzan eliza berriak sartzen dira bakarrik, guztiekiko zerbitzu gertatzen ez badira ere.

Kontribuzio bereziak eta hauzo burruka

Hauzo elkartea guzti honen atzetik badabil ere, Amara Berriko jende gehien biltzen duen arazoa, kontribuzio bereziarena da. Lur legeak (Ley del suelo) berak agintzen duenaren kontra, delako urbanizazio partzialik oraintsu arte egiteke, etxeak egin eta pilotzen aritu dira udalekoak eta etxegileak sasi ezkontza baten bidez. Eta, jakina, lehenik urbanizazioa egin beharrean, urtez urte etxateria pilak jaso dira, eta azpiegitarik (ur garbi eta zikinrentzako kolektorik, e.a.) eta gainegiturarik gabe

geratu gara. Eta betiko leloa! Udalari erantzunkizun gogorrek eskatu ordez, eta hauzotarrek guzti hau pairatu ondoren, urbanizazioa hauzategiak ordaindu behar omen.

Lehenago inpu gnazioetan, hauzotarrek 90 o/o-etara, eta gero, 75 o/o-etara eta 60 o/o-etara jaits erazi genuen, hauzotarrei zegokiguna. Harez gero, bi epai iragan ditugu, bat Donostiako hauzategi ekonomi-administratibokoa eta bestea, Iruineko kontentzios-administratibokoa. Inpu gnazioa Iruineko epai mahaira altxatzea 300.000 pezetatik gora kostatu zitzaigun, eta honek azkeneko ekonomi administratiboarena baieztatu zuen, halegia, 60 o/o-a hauzotarren gain eta 40 o/o-a Donostiaren kontura ezarriz, halegia, 371.231.148 pezetatik hauzotarrei 222.738.689 ezartzen zaie, bakoitzari 16.000 - 30.000 tartean dagokiola. Hauzia Goreneko epai mahaira altxatzerik ez dugu izan, gastuak milioitik gorakoak zirelarik. Baina, amaratarrak ez dugu etsi. Arrazoiak geurekin baditugu, ez gara berriro zanpatzen utzikō. Legeriak, herri xeheari lege bideak hitxi badizkigu ere, gertu gaude burrukarako.

"Balda" pilotalekuan 700etik goragoko hauzo batzarrean bildurik, kontribuzio bereziak ez ordaintzea erabaki genuen. Ondoren, hauzo elkarteak erabakia beretzat eta bere gain hartzea erabaki zuen beste asanblada batean. Beraz, unerik gogorrenak oraindik gertatzeko daude. Udaletxea hasi da hauzo batetara erreziiboak bidaltzen, baina argi gaude berehala batzarre bat antolatu eta azken burrukan ekiteko.

Alex

ELADIOEN JOKUA SALHATURIK

Aspaldian ELA-STV siglak bi talde ezberdin agertzeko erabili izan dira. Alde batetik Manu Robles Arangizen zuzendaritzapeko sindikatu jatorra, Eibarren bere batzarrea egin zuena, azaltzeko. Bestetik, eladioek Lejoan egindako taldea izendatzeko. Eibarrekoa lehenagoko ELAren ondorio zuzena eta sindikalista zen, bestea, Lejoakoa, beraren ume bort bat besterik ez zen artean. Hala eta guztiz ere, biek izen berbera zeramaten, eta nazioarteko sindikal konfederakuntza berberen babes zutela aldarrikatzen. Oraintsu, baina, nazioarteko lan konfederakuntzek argi eta garbi jarri dute hasiera-hasieratik beratek onhartzen duten ELA bakarra Robles Arangizena dela, Eibarrekoa, eta ez bestea. Eta ELA-Lejoako buru den Juan Beitiari hori gutunez adierazi egin diote. Hona hemen ELA-STV egiazko eta bakarraren oharra, Juan Beitiari CMTEk, CIOSEk eta CESEk bidalitako gutunekin batera. Arazo tristagarri bezain nahasgarri hau, euskal langileria eta herri osoaren onerako, jadanik argitan dagoela uste dugu.



ICFTU international confederation of free trade unions
CISL confédération internationale des syndicats libres
IBFG internationaler bund freier gewerkschaften
CIOSL confederación internacional de organizaciones sindicales libres

RUE MONTAGNE AUX HERBES POTAGÈRES 37-41, 1000 BRUXELLES, BELGIQUE
☎ 02 217 80 85/TELEGR. : INTERCONFED BRUXELLES - TELEX : 26785 ICFTU BRU

P. P. NARAYANAN
President - Président
Président - Presidente

Le 21 décembre 1976

OTTO KERSTEN
General Secretary - Secrétaire général
General Sekretär - Secretario General

CONFÉDÉRATION EUROPÉENNE DES SYNDICATS
EUROPÄISCHER GEWERKSCHAFTSBUND
EUROPEAN TRADE UNION CONFEDERATION
DEN EUROPEISKE FAGLIGE SAMORGANISASJON

☎ RUE MONTAGNE AUX HERBES POTAGERES 37 - 1000 BRUXELLES
☎ (02) 217 91 41/42 - 219 28 76/77 - ADRESSE TELEGR. EUROSYNDIC

ELA-STV-k, Euskal sindikalintzak, «ELADIO» delakoen jokaera maltzuraren eraso, dia jasan behar izan du. ELA-STV siglak erabiliz, ez dute inongo lotsarik izan «sindikalista» bezala agertzen, gurearen itxura bereko aldizkariak argitaratuz, Lejoako «Kongreso» delakoa burutuz, gure sigla eta arazo gramak bere eginez eta Nazioz Gaiandiko Konfederakuntzen siglak erabiliz, beraien behin eta berriz salatu eta baztertu dituztenaren jakinaren gainean.

Langileria eta Euskal sindikalistak zaitza eta itxuragabete ahalegin hauk, nagusi goak eragindakoak dira, bitarteko egoera ilun batek babesturikakoak. Gisa honetan, nagusigoak entpresa mailako elkarre eta ordezkariak bultzatzen ditu eta «demokratik» hauteskundeak eratzin, benetako sindikal Konfederakuntzen bilakaera eta hedapena mugatzen saiatuz.

Gaur, Otto Kersten, C.I.O.S.L.-ko Idazkari Nagusiak eta Mathias Hinterscheid, C.E.S.-ko Idazkari Nagusiak, «Eladio» taldearen buru den JUAN BEITIA GORRIARAN-i zuzendutako eskakizunaren berri eman eta Euskal langileria jakinaren gainean jarri beharrean aurkitzen gara. Eskakizun hauk Konfederakuntzaren Lehendakari, lehendakari ordezeko eta Idazkari Nagusi diren Manu Robles Arangiz, Joxemiel Leunda eta Alfonso Etxeberriaren eraginez, notarial bidetik bidali zaizkio. Era berean, argitara ematen dugu C.M.T.-ko Idazkari Nagusi den Jean Kulakowski-k bidalitako gutuna.

Ihaz, jadanik, JUAN BEITIA GORRIARAN delakoak Bruselara joanaldi bat egin zuen. Nazioz Gaiandiko Barrutiak ELA-STV-ren ordezkari onhar zezan. Joko honi Nazioz Gaiandikoen jarrera sendo eta garbia opa, eta zuzen, gure Sindikal Konfederakuntzaren harenaganatzea ontzat ematen eta zuzena.

Bestalde, arazo honek argitasun gehagorik eskatuko balu, atzerriko sindikatuek ordezkari gure III Kongresoan emandako egonaldiak eta informabideei esanak, behin betirako argitu dute Nazioz eta Nazioz Gaiandiko Konfederakuntzen ezagutza eta babes, III Kongresoan aukeratu buruek ezin bat onetsi zituztelarik.

Hala ere, JUAN BEITIA GORRIARAN bere taldea, C.M.T., C.I.O.S.L. eta C.E.S. siglen erabiltzeari jarraitu zaizkio. Erabiltze izakerazko, jakinaren gaineko jarrera hau izan da Nazioz Gaiandiko Konfederakuntzaren segidan azaltzen diren idatziak bidaltze behartu dituen, aditzera emanez, beste siglen bereganatze honi jarraitzen bazez, kontuak judizialki eskatzera behartu gertatuko direla.

Nazioz Gaiandiko sindikatuen jokaerak argi eta garbi balezatzen du Euskal Sindikalintzarekiko onspen eta babes, bestalde, zera erakusten digula, politik maltzurkeria eta azpi jokoz euskal langileria ilundu nahi duten talde honen itsukeria, arduragabekeria eta taldekeria larria.


Alillatu eta bestelako langile guztio eskaerak kaintzen zaizkizue segidako txostenak, arretaz irakur dituzten.

Irudiak: Antton Olariagak
Gidoiak: Xabier Kintanak

anaitasuna ren 6 komikia



30 ERA BI MILA 2000






HAU DA TOKIA



GORA GORA
GORA GURE ERREGINA
B 2005



NORTZU
00 u0tc w
DIRA HORIK ?

LAGUNAK
DIRA
ERREGINA



ZER NAHI
00000
DUZUE ?


BAKEA
LORTU NAHI
GENUKE
MAIESTATEA.



BAKEA!
05000
OI POLITIKA
DA HORI



ZOAZTE
NIRE
JENELARENGANA
-COS-C↓~



BAINA
ORDUAN

BSSSS
BSSSSS

ALARMA
ALARMA!

euskal hit parade

1. 'maite ditut, maite' 438 puntu



EKONOMIAZKO POLITIKA

Azken urte honetan hainbat kontzeptu, hots, Erregimen Administratibo Bereziak, Kontzertu Ekonomikoak, Foruak, Autonomi Estatutuak eta abar, indartsu kaleratuak ikusten hasiak gara. Hauk denok, historia barneko egoera hasi-berri konkretu bati esker plazaratu ahal izan dira eta arazo politiko bati hemen nahi zaion irtenbideari loturik dabil-tza.

Beste aldetik, urte batzu direla, Herrialdearen kontzeptuak ekonomiaren alor barnean aparteko esannahia hartu zuen. Hala ere, Herrialde izenaren esannahi hori gogo hutsezko maila batetan erabilia izan da, nahiz eta ekonomilari batzuk ekonomiazko ikuspegi hutsez hartu nahi izan, eta, egun, gehienek Herrialdearen izenpean, gure ustez ekonomiazko ikuspegia ez da garrantzitsuena, beste faktore askok ere eskuhartzea dutela onhartua dute.

Ekonomiazko politika teoriko baten barruan agerturiko jokera berri honek, Estatuaren jokera aizerakoiaren muinetan oinharrituriko aurrerapen konkretuan du iturburua. Metodo berri honen bidez lorturako aurrerapenaren agerri bat ikusteko, ez dugu urrutira joan beharrik. Nahiko dugu Espainiako Estatu barneko Probintziei (Legeak onharturiko Entitate berezi nagusiei) azal-azaleko begirada bat egitea, zeren guzti horiek ba dute zenbait eragozpen gogor, "kosta hala kosta eginiko Estatu aurrerapenari" jarri.

Nekez aurki daiteke arazo politikoa eta ekonomikoa elkar-loturik dabilatzala argi ikusten ez duenik. Hori hola, alferrekoa litzateke hemen alor hori azaltzen hastea. Hala ere, ezer aldatua izan ez dadin aldaketak gertatzen ari diren goi mailetako pertsonalitate batzu, Gernikan Batzarre Nagusiak, inork ez daki garbi zertarako, bildu behar direla eta esanaz eginiko deiak datozkigu gogora, eta ea esannahi batzu azaltzen hasi beharko ez ote ditugun pentsatzen ari gara.

Nazionalitateen arazo politikoaren konponke-

tarako hartutako edozelako irteerak, hautapen ekonomiko bat eraman behar du barruan, hori gabe inolazko esannahirik edo mamirik ez duten hitz hutsetan ibiliko gara eta.

Honekin ez dugu esan nahi orain artean eskainiak izan diren konponbide politiko desberdinek jokera ekonomiko apartekorik ez dutenik, ez. Guk baieztatzen ditugunak, ordea, beste hauk dira:

—Interes ekonomiko horik direla, izan ere, ekonomiazko alternatiba aurkeztea deusezten dutenak, beraien hautapen ekonomikoa gaur egunez duguna bera delako.

—Honelako kasuetan jotzen dela beharezkotzat iraganara begiratzea eta beren esannahia galdu duten aintzinako Erakundeak birbiztea, jendearengan halako sentipen huts bat sortzen dutenez.

—Alternatiba ekonomiko bat eskaintzeko duten ahalmenez honek, ezer-ezean uzten dituela, hain zuzen, azaleko soluzio politiko hauk.

Hau dela eta, beharbada, interesgarri izan daiteke arlo hau sakontzea eta bide honetatik jokatzea, benetako plangintza ekonomiko baten aurrerapena, Herrialdeetako helburu eta lorbide berezien betegarritzat harturik, egiteko, honek Herrialdeen Agintaritzarentzat beharrezkoak diren ahalmen batzu konkretatzera lagunduko digulako.

Eta Plangintza ekonomikoaren barnean, zerikusi handia du entpresa publikoak. Dударik gabe, orain arte banaketa sakona ibili ohi da Herrialdeko aurrerapenaren eta entpresa publikoaren artean; gainera, hauekariko gehienak izena bakarrik dute publikoa. Baina honek ez du izan behar, nahitaez, Herrialdearen aurrerapen biden entpresa publikoak ukan behar duen eragite dinamikoarentzat eragozpena.

Egungo entpresa publikoaren jo-mugak aldatu egin behar dira, gizartearen interesa osoen alde jartzeko, neurrizko aurrerapen bat lortzeko inbersio eragile eta plangintzaile bilakatzeko, guzti hau plangintza demokratiko deserdiratu baten barnean

SOZIAL MAILAN
BA DIAGU SEGURITATE BAT:
DIRUA JOAN BA DOALA,
BAINA ITZULI EZ.



eginaz. Entrepesa publikoak ekimen autoktona indartzeko izan behar du, gaur eguneko ekintza ekonomiko berriak aurrera eramateko nahitaezko diren ingurutako baldintzak estruktura berezietan, berezko ahalmenetan eta merkatuetan, oinharriturik egiteko izan, Agintaritzza Publikoaren jokoak estruktura berriztatzea bultzatzeko eta Herrialde barneko berezko mugak deusezteko izan behar du, hots, ekintza ekonomikoak eta sozialak eskatzen dituzten aurrerapenak -eta aurrera eramateko.

Entrepesa publikoak, ekonomia demokratikoagoa eta sozializatuago egiteko bide izan behar du, eta horretarako, Nazionalitateen arrosei emandako soluzio politikoarengandik sortutako Agintaritzza Publikoen kontrolpean aurrera eramana izan behar du.

Aintzinatik sektore demokratikoek eskatu izan dutena eta gaur egun ere min biziak sortzen dituen eta ekonomiaren demokraziatze eta sozializatze

bidean lehen pausoa dena, zera da: Banka Pribatua sozializatzea. Sozializatzea hau, egun, Herrialde barnean egin beharko litzateke. Dena dela, guttienez, zera exigitu beharko litzateke, Herrialde bakoitzak bere lurraldeetan sorturiko sarrera ekonomikoak erabiltzeko ahalmena. Alor honetan Diru-Kutxek garrantzi handia dute, euskal ekonomiaren laguntzarako dirubide egokitzat harturik; bestalde, hirilurra sozializatzea nahitaezko beharrezana da, espekulazio denak baztertzeko eta bai baserriko, bai industriako, bai hirietako aurrerapen arazo denei aurpegi egin ahal izateko.

Ez dezagun Haziendaren arazoa ahantz. Argi dago aztertzen ari garen gaiarekin duen zerikusia; Ames gozo bat litzateke nolana hiko plangintza ekonomiko bat egitera eramateko beharrezko diren diruak gabe asmatzea. Gai hau aurreko lanean aztertu genuen. Honetaz gure ikuspegia jakin nahi duzuen irakurleoi, gai horretaz dioguna ezagutzera dei egiten dizuegu.

Seguritate Soziala, gaur egun Hego Euskal Herriak dirutza galanta atartzeko bide dugu. Honez, "Los influjos financieros en España" izeneko lan bat egin du Bilbo-ko Bankuko ikertzaile taldeak. Bertan agertzen denez, Seguritate Sozialak 1968-73 urteen barnean Euskal Herriaren eskuratu dituen sarrerak 110.183 milioi pezeta dira; Era-kunde horrek Euskal Herriaren egindako gastuak, ordea, 90.505 milioi dira bakarrik. Euskal Herriaren kalterako egindako mentsa, 20.000 milioi pezeta ingurukoa izan da, ba; urteko 3.300 milioi gutti gorabehera.

Aurrera ekarritako datu horiek nahiko esannahi dute, Seguritate Sozialak Herrialdearen kontrolpean egon behar duela eskatzeko, eta oraindik gehiago Euskal Herriak dituen Zerbitzu sanitarioen egoera eskasa kontutan hartuz. Herrialdeko kontrola aipatzean kontrol demokratiko bat esan nahi dugu. Guttienez ondoko hauen berriak zehatz eskatuko dituen:

-Erakunde horren diru-kontuak.

-Diru horik zertarako eta nola erabiliak diren jakitea, horrela sarrera horik Herrialdeko plangintza sanitoriotik kanpoan diren gauzetarako erabiltzea, ezinezkoa bihurtzeko.

Hauk honela, zer jazoko litzateke Espainiako Estatu barneko beste gainerako Nazionalitateekin eta Herrialdeekin? Gure ustez arazo honen erantzuna, hartzen den soluzio politikoak mugaturik etorriko litzateke. Txosten honetan argi jarri nahi izan duguna honako hau da, zen Herrialdek edo zein Naziok (konkretuki Euskal Herriak) bere ekonomia eta finantzierak kontrolatzeko duen premia. Hau ez doa, inola ere, esate batetarako, Nazionalitateek edo Herrialdeek, beren arteko aurrerapen desberdinak sorturiko goi-beherak konpontzeko Elkarren arteko Kutxa bat sortzearen aurka.

Haran.

LEMOIZEN ZENTRALIK EZ

“Euskal Itsasalde ez Nuklear Defentsarako Elkartea”k prentsaurreko bat antolatu zuen joan zen Apirilaren 20an. Bertan bi agiri zabaldu zituen. Batean Administrazioaren kontra hasitako lege eginkizunak azaltzan dituzte komisiokoek eta, bestean, Bizkaiko Diputazioak Basordan (Lemoiz-Mungia aldean) egiten ari diren zentroleari buruz duen joera maltzurra salatzen dute.

DIPUTAZIOAREN ISILTASUNAK

Bigarren agiriko zenbait zehaztasun ematen hasiko gara. Diputazioa ez dela herriaren ordezkaria esan ondoren, Diputazio honek Iberduero, S.A.-rekin dituen harreman hestuek salatzen dira. Bizkaitar Diputazioa Iberdueroren zerbitzari eta morroi apal bat besterik ez dela agertzen dute argiki komisiokoek eta, honetarako, azken epean gertatutako zenbait jazoera laburki azaltzen ditu. Hots, Martxoaren 31an Diputazioak hartutako erabaki garrantzitsu bat. Egun horretan egindako biltzarrean, Diputazioak Basorda alderdiko “(zona) berde” izendakizuna kendu zuen, Iberdueroren eraikuntzak legalak bihurtzeko. Arazo berezi horretan, Bizkaiko Diputazioak Iberdueroren bidetik oztipoak aldatu dituen bezala —herriaren interesak zapuztuz— beste askotan ere berdin egin du. Martxoaren 31an hartutako erabakia, gainera, Diputazio berberak egindako plangintza baten aurka doa, zera, Plentzia-Lemoiz lurraldea Bilbo Haundia eskualdearen zabalkuntza edo “zona de expansión” bat bezala ikustea. Iberduerori emandako erraztasunek —lege kontrakoak, gehienak—, eta “zabaltze-gune” honek elkar jotzen dute. Iberduerok, zentrolearen inguruetakoz zortzi kilometroetan, hots, Plentzia, Gorliz, Bakio, Lemoiz, Armintza, Maruri, Barrika, Butroi, Gatika eta Garai herrietako, bizilagun-handitasuna kontrolpean jarri behar dela dio, bizilagun-handitasuna Bilbo eskualdeko ezker hibaialdean oinharrituaz. Hitz laburretan, Diputazioak dituen plangintza guztia-aren kontra doa Iberduero eta, hala ere, Diputazioa empresa honi nahi duen guztia egiteko baimen osoa ematen ari zaio, behin eta berriro.

Joera ulergaitz hau salatu ondoren, Diputazioak herriaren boza maiz entzun arren, ez duela ez erantzun, ez eta adierazpenik eman ere, garbiki azaltzen du agiriak. Ikusten denez, Diputazioari bost axola diote herri maila guztietatik heldu zitzaizkion kekek eta oharrek. Bizkaiko Diputazioa, gai honetaz hitz egitean, ez da herriaren galderak erantzuteko, Iberduerori erraztasun osoak emateko baizik.

ERRESPONSABILITATE ESKE

Bizkaiko Diputazioaren joera maltzur honen kontra, herria legeak opatzen dizkion bideak ibiltzen hasia da. “Diputazioa” abstraktuki ikusi beharrean, hemendik aurrera erresponsabilitate pertsonalak epaitzen hasiko da. Diputazioa pertsona konkretu eta bereziak egiten dute eta epe laburrean pertsona horiek bere herri-kontrako eginkizunen kontua agertu beharko dute. Gaurkoz, nahiz eta pertsonalak ez izan, eginkizun batzu hasiak dira. Apirilaren 6an, Lemoiz eta Mungiako udaletxeetan, espediente bi aurkezpetuak izan dira. Lemoizeko espedienteak 124 lagunek izenpetuta dago eta Mungiako espedienteak beste 53 lur-jaberen firmak bildu ditu. Bi kasuetan lemoiztarrek eta mungiatarrek beren Udaletxeek hartu dituzten erabaki kaltegarrien kontra doaz eta udaletxeek sei hilabete barruan erantzun beharko dute. Erabaki kaltegarri horik, noski, Iberduerori bideak erraz jartzeko hartuak izan ziren.

Espediente hauk egiteaz gainera, sinatzaileek idazki bat bidali dute Madrilera, “Dirección General de Energía”ra, hots, Industri Ministeraritzara. Idazki honen bidez lemoiz eta mungiatarrek Iberduerok egin dituen lege-kontrako gauzak salatzen dituzte. Bi akusazio garrantzitsuenak hauk ditugu: eraikuntza “Dirección General”en baimenik gabe egin du Iberduerok eta, 1976. urte arte, Arkitektoen eta Ingeniarien Kolegioak eman behar zuten baimen teknikoa ez du izan Iberduerok. Ondorio bezala, mungiatar eta lemoiztarrek “Dirección General”ari eraikitze baimena Iberduerori kentzeko eskatzen diote eta, gai honi buruz zehaztasun gehiago biltzeko, Viennan bere zentrua duen “Organización Internacional de Energía Atómica”ri berri gehiago eskatzeko gomendatzen diote.

Bitartean Lemoizeko zentrolearen lanak aurrera doaz. Beti bezala, herrigintzak izan beharko du lan horien oztipo nagusia.

X. A.

KASen AGIRIA

Iberduerok S.A.k bere energi projektuetan erabiltako prozesua sakonki aztertu eta Euskal Itsasalde nuklear kostatutako daraman plana bereziki ikertu ondoren,

Mundu osoaren mailan arazo honetaz dauden eritzi kontrastak gero eta haundiagoak egiten direla eta energi hautakizun horren kontrako argudioak gero eta sendagoak direla ikusi ondoren,

Esandako proiektuek Euskal Herrian sortera duten kezka eta oposizioaz jabeturik, eta azkenean, programa horrek Euskal Herriaren barrutian, bai politikan eta bai lurraldearen erakuntzan, ekarriko lituzkeen ondorioak xeheki arakatu ondoren, K A Sek hurrengo argitasunak eman behar dituela uste du:

1.—Iberduerdok S.A.k gure Herriari jarri nahi dion energi politika errotik kondentzen dugu. Beraren portaera despotikoak argiro erakusten baitu kapital monopolista internazionalaren eskutik kapitalismoak gurean obraturiko harrapakeria.

2.— Era berean, Bizkaiko Diputazioaren eta arazo honetan zuzenik sartuta dauden Udalen (Lemoiz eta Mungia) portaera zapaltzaile eta degradagarria kondentzen dugu, berak Iberduero S.A.k egindakoen estaltzaile garbiak izan baitira entresa horrek, horrela, gure administrazioan bere eskua sartuz eta Madrileko gobernuaren laguntzaz Lemoizeko nuklear proiektu ezlegala instituzionalizatzen.


3.— Iberduero S.A.k Euskal Herriko pentsatutik dauzkan nuklear proiektu guztiekiko eta bakoitzarekiko (Lemoiz, Tuter, Deba, Izpater-Ea) gure oposiziorik biribilena agertzen dugu.

4.— Euskal Itsasalde Ez Nuklear Defentsarako Batzordeak orain arte egindako helburu eta nekazineko pauso guztiak onhartu eta beraiekin guztiz bat gatzela adierazten dugu.

5.— Euskal Herrian ari diren alderdi eta erakunde herritar guztiei dei bat egiten diegu, guztiok, esandako helburuak lortzeko burruka, batera eraman dezagun.

KAS
(E.H.A.S., E.I.A., L.A.I.A.)

Egia nahiago duen marka



Otsein 
Asmoak eragile

GARBIGAILUAK, BAXERA-GARBIGAILUAK, HOZKAILUAK, TERMOAK, EGUZKI PLAKAK.



ARESTI mistikoa ote?

ARESTI POETA MISTIKOA OTE DA, OTERO BEZALATSU, MADARIKATUAZ GAINERA, BERAK BERE BURUAZ ARI ZELA ESAN ZUENEZ?

Hamabi euskaldun eskolaturen eritziak bildu ahal izan dira Arestiren poema zatia batez, Arestirena zela esan gabe bat batean emanak, bat bakarra bera ere konturatu ez zela norena zen. Hala izanik ere ez dut uste gauza mira egitekoa denik, zeren oraintsu bere poema guztien liburu biak argitara diren arte behin baino ez baitzen moldezko letretan ezarri eta ezarri ere Euskal Akademiaren **Euskera** errebistan eta dakigunez ez da gehiegi zabaldu izan.

Inkesta hoberik ezin eskura genezakeen, zenbait jende Aresti goraiatzaren bazterretan dihardukan garaion, poeta hilaren itzala bakoitzak bere alderdira erakarri nahirik balebil bezala, hori egiazki eta zeharo posible baldin bada. Dudarik gabe Arestiren itzulinguru poetikoak oro hobeto ezaguterazteko balioko du.

Hau da poemaren zatia, zortziko txikiaren neurri zesura gabekoez baliaturik bere gisara tolestatua, egileak doinurik gogoan erabili ezarren azentuaz arduratu gabea, gogoetan ritmoaren bila saiatu baitzen.

"Orain hemen nago, lore-mendi honetan. Nire gogoetak eginik, gailurretan. armada loratuen parena naiz orain. Orain ez nago han, lurralde hotz haietan. Misterio guztiak ulerturik benetan, nire arima eztago mirari baten zain.

Bidean hartu dut menturazko harnasa. Eztaukat lehengo dudetako mataza, askaturik baitago korapilotxo hau. Hodei eta errainu guztiak urratu, sentitzen ezpaita inun sufrimenturik, galtzada lagun batek honera ekarri nau".

G.Aresti, Maldan behera poemaren zatia, **Euskera** aldizkarian lehen aldiz argitaratua.

Erantzuna eman dutenen izenak ez ditut aipatu eta sekretuan geldituko dira betiko, eritzi adierazi duen bakoitzak apurto nahi ez baldin badu. Bosti baimena eskatu zaie erantzun zutena argitara ateratzeko eta hona hemen ziotena:

a) "Poema zati honi gaiaren aldetik interpretazio asko ematea posible izanarren, nirekiko erlijio bizitza bat eta, zehazkiago esanik, gizonaren trazendentzia dago guztiaren oinharrian, arimaren betikotasuna. Elizgizon batek egin dirudi eta agian Iratzederrena izango da. Harrigarria da zati honetan adjetibo batzuk ematen dioten espresio indarra: "armenda loratuaren" eta "lurralde hotz haietan".

b) "Poema honetan Lizardik (hauxe uste dut dela egilea) irudi ugari eta finez, bere arimak zalantzak gainditu ondoren, duen poza eta gorantz adierazten digu, ez bakarrik adierazi, baita ezarri ere egiten ditu sentimendu hau".

d) "Poema hau gaurko poeta batena ote den? Hala iruditzen zait. Konparazio ugari gaurko estetikari... Lizardirenak ote dira bertso hau?".

e) Bere burua lore batekin konparatzen du eta metafora honen bidez azaldu nahi duena zera da: estasi une batetan dagoelarik gogoetan edo erlijio-ra konbertitu ondoren honek dakarren satisfazio eta poza. **Lehenengo bertsoa:** Nire gogoetak egin ondoren orain benetako kristau bat naiz eta kristauen multzo horretan aurkitzen naiz. **Bigarren bertsoa:** Orain ez nago bekatutan, nire arimak ez du miraririk espero, duda guztiak argi dituenaz. **Hirugarren bertsoa:** Konturaturik nire bizimoduaz azken bertsoa: Nituen oztopo eta zailtasun guztiak gainditurik bide on batez konbertitu naiz".

f) "Poeta ez zaigu mintzo lurretik, lurrez gorago dagoen maila batetik baizik. Lurrarekiko loturak hautsi eta maila mistiko batetik ari zaigu. Batez ere nola aurkitzen den adierazten digu, baina horretarako lurtarroiz ezagunak zaizkigun figurak erabiltzen ditu. Lurtarrok (gisa abereok esango luke. X. Letek) ditugun problemak gainditu eta bentzurik dituela adierazten digu. Ez dago munduan, lore-mendian, baizik; ez du hotzik; misterio guztiak ulertzen ditu; ez dago gauza harrigarri baten zain. Honek, dudarik gabe, giza abereok lore-mendian ez gaudela esan nahi du, ez garela armenda lorearen pareko, hotzak gaudela, ez dugula misteriorik ulertzen eta gauza harrigarriaren baten zain gaudela beti.

Baina dagoen tokira galtzada legun batek eraman duela dio. Zer da galtzada legun hori? Heriotza, agian. Baina harriturik gelditzen naiz galtzada legun dela baitio eta, nik dakikedanez, zintzurretik itxi-murkatuz eramaten gaituen labeperro ("labeperro" esaten dugu guk) baten antzekoa baita. **Legun,** agian, beretzat heriotza bizitza hobe batera eramaten gaituen bide edo galtzada delako dio. Hemengo duda mudak garbitu zaizkio poetari eta sufrimenduezaren lurraldetik ikusten du mundu berri hori. Mundu berri hori beretzat hemengoaren antitesis bat da, hemengoaren azpikoz gorakoa, denboraren sareek harrapaturik edukiko ez dutenekoa. Hobe aldegingo bagenu eta gure oin lurtar eta nagiok hego bihurturik sekulan gehiago ez bagina itzuliko!!! Baina "ez dago itzultzerik" Bertold Brech-ek esan zuen bezala.

Maldan behera poema oso arakaturik eritzia ematera bultzatuko nituzke denak ontzat hartuko dutela baneki. Aintzinetik dakusat, ordea, eskabide merkea dela enea.

Argitaraberi diren Arestiren beraren liburu bietan dauntza hark izkribaturikako poemak eta sakondu nahi dituenak lagungarri egoki ta guztiko iturburura jo dezake.

ALFONSO IRIGOYEN.

JAKIN

EUSKAL KULTUR
ALDIZKARIA

10 urte debekaturik egon ondoren
berriaz kaleral

Hiruhilabetez behin
argitaratuko da

Monografiak
dosierrak
azterketak
kritikak
gaurko gaiak

Bigarren zenbakiaren
gai nagusia:

NAZIO UKATUAK EUROPAN

Bigarren zenbakiaren lankideak:

P. Agirrebaltzategi
J. Apalategi
B. Bakaikoa
J. Intxausti
P. Iztueta
M. Pagola
I. Sarasola
J. M. Torrealday
Txillardegui
P. Xarritton
M. Zalbide

JAKIN

500 pta. urtean. 175 alea

Eskabideak eta harpidetza:

Cuartel 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 65.11.06

DEITUREN INGURUAN ¹

Aurtengo Apirilaren 3ko Zeruko Argian (732. zenbakian), Bizkarolazagak Deiturak izeneko artikulatu bat agertu zuen. Gaia, berez, interesgarria delakoan nago, eta berak hasitakoari, beste bide batzutatik bada ere, segida emateko asmoz nator.

Artikulu horretan esaten denarekin, funtsean, batera nago, aipatzera noan honetan izan ezik: "Bi euskaldun elkar topatzen direnean, bi galdera egin ohi diote elkarri: "nongoa zara" eta "nola duzu abizena".

Goazen zatika. Lehengo eta behin irakur dezagun ongi esaldia. Hasteko, euskaraz dator, eta bi euskaldun dio. Bi euskaldun, eta ez bi basko (dos vascos) beraz. Ondorioz, galderak, egitekotan, euskaraz eginen lizkiokete elkarri. Nongoa zara horrekin konforme. Baina bigarrenarekin, ordea, ez. Neure bizitza osoan inork ez dit euskaraz sekulan galdetu deitura. Nongoa naizen bai, eta izena, inoiz, ere bai, baina deitura... behin ere ez! Erdaraz, berriz, ba liteke... baina hori ere, lagunen artean behintzat, ez da oso normala izaten. Eta izan, bestela badirudi ere, itxurazko deitura zaletasun hori ez dugu hain geurea, ez da gurean hain jatorra. Azal dezadan, baina, puntu hau.

Iturrien bila

Itzul gaitezen iturrietara. Herriagana. Baserriko, portuko edo kaleko euskaldunen artean, zenbatak daki alboko lagunaren deitura? Egizue proba bat: galde egizkiezue baserritarrei beren hauzoen deiturak. Ehuneko larogehitahamarrek ez dakizkizute. Hauzoen izenak bai, eta baserrienak ere bai, noski, baina deiturak ez.

Hauzoak Peru Bengoetxekoa, Mari Larrabekoa, Urrufino Iturriondokoa, Kontze "Arrainduna", Antton "Errementaria", Katalin "Hankokerra", Txomin "Okila", Joana Alkatenekoa, Martin Kaksainekoa, Patxi Giputza... dirateke, hau da, bakoitzak bizi den etxearen, bere ofizioaren, gurasoen izenaz edo eta duen gaitzizenaz ezagutua izaten da beti, eta ez "bere deituraz". Eta hau, gainera, ez da Euskal Herriko kontu soila, munduko edozein Herri normaletako arazoa baizik.

Deituren mythologia

Pertsona bat, bere DNI n 33.711.733 duela eta, hots, kapikua delako, harrotu eta 42.591.748 duen

plebeioaz burlatuko balitz, halakoa zorotzat hartuko genuke seguraski, administrazioan erabiltzen diren zifra arbitrario batzuri nolako balioa ematea absurdua baita. Eta, izan ere, deituraz bantatzea, harrotzea, azken buruan hori besterik ez da, laster, irakurlearen baimenaz, frogatzen saiatuko naizenez.



Alde batetik, jendeak uste du —holaxe sinesterrazi baitzaio— deiturak pertsonari, odol taldea edo hatz marken antzera, berez dagozkion ezaugarri batzuri direla, gurasoek, genetikaz edo, ezabaezinkia emanak. Eta hori ez da egia. Deiturak, hasteko, ez dira zerbait berezko, ez dira naturalki dagozkigun atributu batzuri, zibilizazioaren maila batetan, eta zenbait Estatutan, administrazioak arbitrarioki erabiltako eta gainjarritako marka hutsak baizik. Denboran zehar, gainera, deiturak aldatu izan dira, eta

gaur, demagun, Etxebarria deitura duen pertsona baten aitonaren asaba zuzenak, XVII mendean, Fernández, López edo Pérez izatea gerta daiteke, orduko administral ohituren arauera. Arabako López de Armentia, Ortíz de Zarate eta gisa honetakoak behialako Euskal Herriko deituren egoera bat erakusten digute, Bizkaian eta Gipuzkoan ere, gutienez, aski zabaldua. Gero, toki askotan, erdarazko aurreko deitura kentzeko joera egon arren.

Deituren sorrera

Aintzinan, zenbait herritan bederen, pertsonen izenak zerbait berezi eta bakar ziren, eta lagun bakoitzak berea zukeen, besteengandik bereizia izateko oso nabaria gainera: Epaminondas, Vercingetorix, Kleopatra, David, Abraham... Geroago baina, aurreko pertsonaia haundien edo senideen oroime- nez, izen berbera jartzeko ohitura zabaldu zen ber- rautan, lehenagotik ere izenetan hain aberats ez ziren herrietan gertatua zenez. Ordudanik, jakina, toki berean lagun bat baino gehiago gerta zitekeen izen berberaz ezagutua. Elkarrengandik bereizteko, hortaz, beharrezkoa izaten zen gehigarri bat, ezau- garri gisa, eranstea. Gehigarri edo goitizen hori era askotakoa izaten zen, tokian tokiko ohitura, gustu, usuario eta gorabehera berezien arauera.



Erdi Haroan deiturak aldagarriak ziren

Batzutan ezizen hutsak ziren: Betokerra, Kas- kasoila, Beltza, Lodia, Argala... Beste batzutan ofi- zioaren arauerakoak: Artzaina, errementaria, ape- za, hargina... Sarritan, gainera, jatorri, hiri, herri edo eta jaiotetxeaz bereizten ziren, bai eta gura- soen izena, genitiboz, gaineratuz ere; horrela non- goak edo noren seme- alabak ziren adierazten zen.

Hauk izan ziren, izan, deituren jatorri histori- koak, Herriaren bereizi beharretik sortuak. Sasoi hartan, ordea, administralgoa ez zen, eskuharki, gaur bezain zehatza, eta deiturak, goitizena, herri usuariozkoak izaten ziren, inoiz, hauzi edo zerga kontuetan pertsonak agertu beharra zegoenean, holaxe, herrian bezala, azaldu arren.

Deituren aldakortasuna

Sasoi hartan deitura ez zen gauza iraunkor bat, gurasoengandik haurrengana "nahi eta ez" pasatze- koa. Martin "Hargina" ren semea, kasu, Mikele "Errementaria" gerta zitekeen, edo eta "Harakina" eta Joanes Bengoetxeakoaren alaba, haraxe ezkon- duz gero, Mari Errekaldekoa bilaka zitekeen. Kasu batzutan, ordea, beti etxe berean bizi zirelako edo eta tradizioz, haurrek gurasoen "goitizena" ezagu- tuak suertatzen ziren: Jauregi, Apezetxea, Hargi- narena...

Zenbait herritan usuario pitxi bat jarri zen. Etxearen edo senideen deitura iraunkorrari aitaren izen aldakorra gehitzea: Martin Jauregiren semea, kasu, Peru Martinena (edo Martínez) Jauregiko (edo de Jauregi) izaten zen, eta beronen semea Hernando Perurena (edo Pérez) Jauregiko (de Jauregi), beronen haurra Antso Hernandorena (Hernández) Jauregiko (de Jauregi), etab. Honela, famili izen bat (Jauregi, kasu) beti azaltzen zen, lehengo deitura, bakoitzaren aitaren arauera, alda- tuz joan arren. Eslaviarren artean antzeko gauzak gertatzen ziren: Piotr Ivanovitx Vronsky-ren se- mea, horrela, Grigori Petrovitx Vronsky izaten baitzen, -ovitx "semea" izanki.

Deituren fosiltzapena

Euskal Herriko administral hizkuntza, guztiok dakikegunez, erdara izan da beti, eta horrexegatik euskaldunek euskaraz zerabiltzaten izen deiturak latinez, espainolez zein frantsesez jarri ziren. Gure Martinena, Perurena, Hernandorena, Antsorena, Loperena etab., hainbat tokitan, Martínez, Pérez, Hernández, Sánchez, López bilakatzen ziren doku- mentuetan. Herriko usuarioan, ordea, deiturak goi- tizen hutsak ziren, erabat funtzionalak, eta ez zer- bait funtsezko. Horregatik, hain zuzen, gurasoen- gandik haurrengana, edo eta, adinez, aldatuz zihozten.

Soy un hombre de bien, nacido en el pueblo de... y me he casado con... y me he casado con... y me he casado con...

Enmiguera y... de...

Nafarroa, 1424.ean, lehenbiziko euskal eskutitza. Egilearen deitura, Machin de Çalva, erdaraz jarria.



Madriko administrazioak erabaki behar al digu orain ere euskalduntasuna?

Administralgoan, baina, horrek eragozpen bat zekarren, eta ttikia, famili ondare eta jatorriak konprobatzerakoan. Hori dela eta, XVI mendetik aurrerantzean, notariak eta eskribauek deiturak “fosildu” egin zituzten: aitonak izena Martin zuelako, aita Peru Martínez de Armentia bazen, semea ez zen gehiago Hernando Pérez de Armentia, baizik eta, aita bezala, Hernando Martínez de Armentia. Sistema berri honek, egia da, iraunkortasunaren abantaila zeukan, baina, batera, logika galtzen, absurdua gertatzen baitzen, gertatu, Peruren semea Martínez (Martinena, halegia) zela esatea. Une horrextatik herri usuario jator eta aldakorra eta administrazioarena aldentzen hasi ziren. Herriak, gaur arte, berez iraun du, administrazioarenari kasu egiteke. Bizkaian eta Gipuzkoan, Araban ez bezala, deituren “erdal” patronimikoa kentzeko joera gogorra, absurdutasun horretan ez ote zegoen oinharritua susmatzekoa da.

Deiturak: administrazioaren eskuetan

Administrazioaren jokabidea, bestalde, ez da toki guztietan berdina izan. Denboran zehar, bestetik, aldatuz joan da toki berean. Espainol administrazioak, esaterako, lagun bakoitzaren izenaren ondoan aitaren lehen deitura eta gero amarena jartzea erabakita dauka gaur. Lehen, aldiz, lehen deituratzat berdin har zitekeen amarena —Larramendik holaxe egin zuen— edo eta jaiotetxekoa (Axular, kasu). Frantziar ordea, deitura bakarra dago, aitarena, bai haurrentzat eta bai amarentzat. Dakusagunez, arbitrarioritasuna da honetan nagusi.

Deitura ofizialak: erdal usuario bat

Esandakoaren arauera, argiro ikusenez deitura ofizialak ez direla gaur herritasun eta herri kutsukoak, estatar administrazioaren erabaki hutsak baizik. Administrazio hori, bestalde, erdaraz (espainolez zein frantsesez) izan da orain arte Euskal Herrian, eta horrextatik gure deitura guztiak ere erdaraz jarrita daude, hau da, erdaraz mintzatuz esateko jarriak. Azal dezagun hobeki, baina, berau.

Zenbait izen (Lazkao/Lazcano, Irurtzun/Irurzun...) era ezberdinez ezagutzen dira euskaraz eta erdaraz, eta euskaldunok geure hizkuntza nazionalean Lazkaoa edo Irurtzuna noa diogun artean, inorenean voy a Lazcano edo a Irurzun esaten dugu eskuharki. Bikoiztasun hori, noski, izenok bi hizkuntzetan erabiltzen direlako seinalea da. Dakigun ordea, beste frogak hau. Galde dago euskaldun jende arruntari —“ikasiek” ez dute honetarako balio!—, euskaraz, bere deiturak: beti Recalde, Sarasola, Aranzadi, Lasa, Armendariz, Elejalde, Mendiboure, Arenaza, Lejarza, Elissalt, Landart... erantzungo digu, eta ez, sekulan ere ez, Errekalde, Saratsola, Arantzadi, Latsa, Armendaritz, Elexalde, Mendiburu, Areatza, Lexartza, Elizalde, Landarte... Euskal deiturak ongi emango dizkigute euskarazkoa erdarazko formarekin batera dagoenean (Aresti, Goiriena, Garmendia...), ez bestela.

Euskal toponymian, noski, ba dira Errekalde, Saratsola, Arantzadi, Latsa, Armendaritz, Lexartza delako toki-, etxe- edo herri- izenak, eta bertako edo inguruko bizilagunek, hangoak izendatzeko, orain ere holaxe esaten dituzte euskaraz. Baina deituretan, aldiz, erdal fonetika eta ebakieraz esaten dira beti, eta ez euskarazkoaz. Zergatia erraza da: Euskaldunok geure deiturak non erabiltzen ditugu? Ez, noski, eguneroko herri bizitzan, ez lagun artean, baizik eta notaritzan, udaletxean, haurtegiaren, hots, administralgoan, erdal giroan, nahi eta ez erdaraz egin behar dugu tokietan. Arrazoi berberetatik gure ts, tz, x, gaurko erdaraz kiderik ez dutenak, ez dira transkribatzen, ez eta, ondorioz, esaten, edo eta erdal idazkeraz batera eboluzionatuz joan dira (Lejarza, Elejalde...).

Honekin aski garbi utzi uste dut euskal deituren sorrera eta bilakabidea. Oker zebiltzan, eta dabilta, —beste tradizio batzuren bidean Jon Urrujolegi dabilkigun eran— beraz, erdal administrazioak kontsokratutako deituretan euskal jatortasunaren oinharri jarri nahirik ibilitakoak.

Hurrengoan euskal -eta erdal- deiturismoaz gehiago.

Xabier Kintana.



Algortako Euskal Kultur Saioak




Algortako herriak, joan den urteko abendutik hasi eta etengabeko kultur ekintza batetan buru-belarri sarturik dihardu. Algortako herriak bizi duen esperientzia hau guztiz interesgarria bezain bakarra dela aitor dezakegu.

Kultur ekintza luze eta bizi hau prestatzeko eta girotzeko herri elkarte guztiek, seik, hartu dute parte: ikastolak, Itxas-ganek, Biotz-alaik, foto klub-irudi taldeak, Aldai patronatoak, eta hauzo elkarteak.

Dagoeneko, zortzi kultur aste burutuak dituzte. 1976.eko abenduaren 19an eman zieten hasera saio hauei "Haurren astea" ospatuz, eta ondoren, "Euskal Teatroarena", "Euskal Kulturarena", "Euskal Musikarena", "Euskara eta Ikastolarena" "Bertsolaritzarena", "Estatuto, Foru eta Hauteskundeak 77" eta "Euskal argazkia" ospatuz segi dute bi hilabete luzez.

Antolamendu izugarri baten bitartez egia bihurtuz doan amets honetan milaka pertsonak hartu dute parte, eta "herri unibertsitate" iraunkor baten itxurak hartu dituela esan daiteke zinez.

Esperientzia guztiz interesgarri honen berri zehatzagoak jakin nahirik, antolatzaileengana jo dugu, herri honetan posible izan dena beste herri askotan ere egingarria delakoan, eta gertakari honen argi brintzak Euskal Herri osoraino hel daitezen.



— Nola bururatu zitzaizuen tamaina honetako ekintza batetan sartzea?

Getxo asko hazi da azken urte hauetan. Demografi hazkunde hau, ordea, ez da frasez-frase joan kultur azpiegiturazko zerbitzuen hazkundearekin, eta hauk beharrezkoak dira herri mailan herri kulturaren hazkunderako.

Kultur asteak, hitzaldi sortak, musikazko jai-aldiak, argazki erakusketa etab., herri kulturaren barrutian egin nahi dugun ahaleginaren erakusgai batzu baizik ez dira. Algortan gauden kultur erakundeak, premia honetaz jabeturik, elkarrekin lan egitea erabaki dugu, horretarako kultur mahai bat eratuz. Gure euskal kultura eskaintzea, indartzea, aitzineratzea izan da gure helburua.

— Erraza izan al da herriko talde eta erakunde guztiek elkar hartzea?

Ez, ez da erraza izan, zeren eta elkarte horik helburu jakin batzutarako izan baitziren sortuak. Estatutarioki helburu desberdinak zituzten eta beraien oraindainenoko programakuntzak ere gure herri kultuarekin zer ikusi handirik gabeak izan dira gehienetan. Bestalde, gure historigune beltza kontutan hartuz gero, eta Euskadiri honenbeste kalte egin dioten gorabeherak gogoan izanik, ez da harrizkoa arazoaren ikuspuntu orokorra galtzeraino heldu izatea, nor bere aldetik ibiliz, eta baterako programakuntza oso bat egin ordez, bakarka ekonomi eta antolatze arazoei aurpegia ematen ihardutea.

Zaila izan da, beraz, koordinakuntza batetara heltzea eta guztiek onhartzeko moduko gutienezko oinharri bat erabakitzea. Hau ere esan behar da: haseran zortzi elkarte ginen eta azkenerako, sei geratu gara, beste biok beren gorabehereri eta eginkizunei kasu egin beharrean gertatu baitira.

— Honelako ekintza batek azpiegitura ekonomiko sendoa behar du. Nolako finantziabideak erabili dituzue?

Batekoz beste, kultur asteak beren buruak autofinantziatzeko gai izan dira. Hala ere, zenbait azpimarkatu beharrean gaude:

- a) Publizitate osoa, kartelak, eskuprogramak etab. herriko bankerakundearen kontura joan da.
- b) Laguntza-bono batzu ere saldu ditugu.
- c) Eskupekoak, laguntzak, bai ekonomikoki eta materialki, ere izan ditugu, oso handiak izan ez badira ere.

— Administralgoaren aldetik, ukan al duzue inolako trabarik?

Ez, ez dugu inolako eragozpenik ukan baime-nak lortzerakoan eta gainerakoetan.

— Nolako jarrera hartu du Udalak kultur ekintza honekiko?

Egia esan, Udalak ez du inolako jarrerarik hartu, ez aldekorik, ez aurkakorik. Ez gaituela haintzat hartu, esango nuke.

— Zer moduzkoa izan da herriaren partaidegoa?

Herriak ongi erantzun duelakoan gaude, eta oro har, partaidegoa ona izan dela uste dugu.

elkar ikuskaka

– Zertaz izango dira oraindik burutzeko dau-
den saioak?

Oraintsu bukatu dugu **Foru, Estatutu eta 77 Hauteskunde** Astea, eta euskal zinemaren astea-ri hasera ematekotan gaude; haseran izendatu genu-
en plangintzari bukaera ematera goaz, eta zinemari buruzko hau izango da, seguraski, azkena. Ba da honetarako arrazoirik: Hego Euskadin mitinak eta bilera politikoak ugaltzen ari diren une batetan gaude eta jendeak ia ez du astirik beste egunkizunetarako. Ez dugu nekagarri gertatu nahi eta garai urduri hau beren bideetatik joan daitezen leku eman nahi diegu, honelako ekintzak burutzeko garai egokiaorik helduko den ustetan.

– Leku eta aretoei dagokienez, ba al du Algortak behar adinako azpiegiturarik? Nola konpondu duzue arazo hau?

Algortak, Hego Euskadiko herri askoren antzera, ez du leku egokirik era honetako ekintzetarako; ahal izan dugun bezala konpondu gara. Hitzaldiak eta mahai inguruak Algortako ikastolaren geletan (dohan) eta Gran Cineman (alokatzea ordainduz). Beste modu batetako ihardunaldiei bagozkie, (jaialdiak, bertsolariak...), Gurea zineman eta Fudurako Pelotalekuan. Bertotik, geure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Nikolas eta Juan Uribarri anaiei, Gurea zinemako aretoa dohan utzi digutelako, behar ukan dugun guztietan.

– Zeintsu izan dira arrakasta handieneko ekintzak?

“Musika Astea”, “Euskal Kulturaren 100 Urteak” eta “Bertsolarismoaren Astea”, izan dira jende artean arrakasta handieneko asteak. Jakingarri gisa, Ondarroako “Kresalak” ihardun zuenean, Fudurako Pelotalekua goraino bete zen: 1.800 pertsona. Pelotaleku honek bere historiako betekadarik handiena ezagutu zuen.

– Esperientzia hau ikusirik, zer asmo duzue etorkizunari buruz?

Dakizunez, euskal kulturari buruzko ikastaldi bat antolatu du Gernikak aurten eta interesgarria delakoan gaude. Beronen antolatzaileetariko batekin mintzatuak gara eta datorren urtean guk ere horrelako zerbait egin dezakegula uste dugu. Asmo bat besterik ez da, jakina.

– Besterik bai; kultur saio hauei buruz, interesgarri izan litekeenik?

Kritikak jasotzeko eta gogoeta egiteko ordua da. Oro har, pozik gaude. Garrantzi handiko bentura batetan sartu ginen eta onik atera gara. Bestalde, Algortako zenbait elkarteren arteko harremanak hestutu egin ditugu eta horrek ba du bere garrantzia. Horrezaz gainera, gorabehera asko izan da eta gure izaera aztertu eta ondorioak ateratzeko ongi etorri dira. Egin nahi dizkiguten kritika guztiak onhartzeko prest gaude, zeren eta etorkizuneko hobetzeko baliotsu izango baitira. Gu geure aldetik pozik gaude kultur hiruhilabete honetan lortutakoarekin. Programaturiko ekintza desberdinetan jendeak ukan duen partehartzean oinharritzen gara hau esateko.

X. Mendiguren



musika

Irakurleok!

Musika gure kulturaren fazeta nabari delarik, iraunkorki erakusteko, zenbaki honetatik aurrera, gure al-dizkariak, arte honen atal bat argitaratuko du.

Atal honek, Euskal Herriko musikaren agerpide nabarmenak bildu nahi ditu eta horretarako irakurleen laguntza eskatzen dugu, bai materialea edo bai jaialdien, diskoen, kontzertuen eta abarren informazioak bidalduz.

Gure helburua euskal musika indartzea eta gaurkotzea da.

Zuen laguntzaren eta kritikaren zain gelditzen gara.

ANAITASUNA

“EUSKAL HIT PARADE”ko karrera

Momentu honetan, puntu guztietatik ikusita, benetako kritika bat egitea, behar beharrezkoa da euskal musikaren inguruan, bertan gure herriko kultur mugimendu guztia enbortzen delako.

Eta baiezpen honetan, egiten den lana ez dela osorik onhartu behar uste dut, puntu negatibo eta kulturkontrakoak ere ba daudelako; hauk kendu egin behar dira; eta musikan, diskografia aldetik eztabaida batzu agertzen dira. Eta honetan ez dira bilatzen beti ekarpen positiboak, euskal musikak musikako sarkinkeria eta erdal jatorriko produktuekin apur dezan. Eta, gainera, herriko aurpegi edo sasi abertzalezko bukaera batekin, merkatal urtekerak edo espekulazioak nahi dituzte estali; eta hau jendearentzat iruzur bat da.

Kasu berbera da, beste batzuren artean, azkeneko disko batek erakusten duena, titulu deigarri batekin: Zutik. Den bezala, ikurrin batekin azal erdian; azal guztian herriko manifestazio batekin eta bere alde behean soinu batzuren izenekin: AS-KATASUNA, EUSKO GUDARIAK GARA, BATA-SUNA.... L.P. honetan sartuta, tresnaz dela eta Quique Ugartek izenpeturik datorrela.

Azal eta gaietatik, herriak abestu duen kanta batzuren bolketan on bat dela uste ahal da. Baina diskoa, Askatasuna! oihu batzurekin, soinu egiten hasten denean oso ezberdina da hartzen den inpresioa. Bide beretik, gaurko diskografia apur bat aztertuz, ideia batzutan ikusi ahalko genuke, haren azterketa beharrezkoa uste dugula, eta haren musikal urtekerena ere bai, holako eztabaidarik ez sortzeko.

Lehenik eta behin ahal genioke errua diskoetxeari egotzi —Philipsek izenpetuta eta Fonogramek argitaratuta baitago, hainbat kapitalista moduan Madrilen sustraituak— gure euskal artistak bultzatzeko hain gutti egin dutenek ez dutela trabarik aurpegia aldatzeko, gaur egun Euskadik ematen duen zatiketarik merkatuan ikusirik. Horregatik, musika tresnaz gure herrian grabatuta hain gutti dagoela ikusirik, holako disko batek aurkitzen du tokia bere salmentarako, bere edukia begiratu barik, editagarritasuna baitu, nahiz eta ikurrina komertzializatu.



Disko honi gerrikaturik, nabaria da, herritar soinu honen serietate apurra, laguntza kaxkar eta pasagarri batekin baxu, flauta eta bateria aldetik, Quiqueren joera onhargarri izan arren; fama eta broka gehiago erabiltzea agertzen du, diskoaren seriotasuna baino. Zuzendaritza, Alfredo Garridok izenpetua agertzen da, bere ausartasunagatik dir-dira egiten, L. P. guztia txaranga merke baten irudia denez.

Horregatik pena bat da, Quiqueren bide distiratsua, diskoak erdaraz agiria, diskografi traba honetatik igarotzea, zeren bere interpretazio posibilitateak txikituta gelditzen baitira hainbeste momentutan.

Akordeoiak posibilitate artistiko asko du eta herriko tresna bezala sustraituta dago; baina gaur beharrezkoa da, apur bat zaintzea, tresna honi balorea ez kentzeko. Euskal musikariek herri musika-ko birbaloratasun bidean, bere moldatzea eta gaurkotzea, bai akordeoiarekin edo beste tresna batzurekin egin behar dute lan.

Baina ororen gainetik, seriotasun apur bat behar da.

Erletxe

KATEDRALAREN GARBIKETA



(Irakur Jn. 2: 13-22)

Euskaldunen Aberri Eguna hurbiltzen ari zen eta Jesus Gasteizerantz abiatu zen. Han Katedralean, idi, ardi, uso eta Herri saltzaileak aurkitu zituen eta betiko oportunistak eta folkloristak beren salekuetan. Metraileta bat harturik, guztiak aireean bota zituen handik kanpora, beren ardi, lauburu, uso, ikurrin, arrosario, poster, idi, kandela eta eranskailuekin; alu haien irabazi guztiak komunetik behera bota, mahaiak hankazgoratu eta hainbat folkloristari esan zion:

– “Ken ezazue hau guztiau hemendik, eta Herriaren Eguna ez ezazue Festa Merkearen Egun bihur”.

Oso bazkari abertzale eta bikain baten erdian -presoak gartzeletan oraindik-anaiarteko bakea bortxatua izan zela eta, hango politikari tripaundi eta juiziotsuek, zera aurpegiratu zioten Jesusi:

– “Gazte buruarin eta iraultzaile merkea! Zer eskubidez jokatzten duzu honela?”

Eta Jesusek erantzun:

– “Herri desegin eta alienatu hau, hiru egunean aska eta eraiki dezaket berriro”.

Eta haiek orduan:

– “Nola diozu umekeria hori? Guk gudu bat egin genuen eta gainera berrogei urtetan oraindik gutxiak dakizkien gauzak egin ditugu Herriaren zerbitzuan”.

(Baina haiek ez zuten nahi ulertu Jesusek zioena)

Eta hildako askoren artetik, Herri aske eta berjabe bat biztu zenean, orduan bakarrik ulertu zuten batzuk zer eskubidez jokatzten zuen Jesusek halaxe.

Amen.

HAMAR BIRJINA POLITIKOEN PARABOLA

(Irakur Mt. 25: 1-13)

Jesusek beste parabola hauxe kontatu zien lagunei Martutenenen:

Zeruko Erreinua hamar alderdi politikoaren antzekoa da: horietariko bost oso burutsu eta burrukalaria ziren, baina beste bostak kaskarinak: oportunitatez eta hitz hutsez beteak.

Guztiak, beren programak hartu eta Herriarengana irten ziren; baina lehenengoak 40 urtetako burruka latza zeramatzen berekin, eta besteei ahaztu egin zitzaizkien kriseluetarako olio hartzea.

Diktaduraren gau-erdian oiher bat entzun zen:

– “... hil da azkenik! Ba dator demokrazia: itzar zaitzete!”.

Orduan, bizkor bizkor, denak prestatu ziren, Batzarre Nagusiak egin eta... zera: bost kaskarinak orduantxe ohartu ziren: “Ene! ez dugu nahiko oliorik kriseluetarako, argiak itzali eta ez gaitu Herriak ikusiko”.

Eta lasterka batetan, Madrilera joan ziren legeztapena eskatzera (...presoak gartzeletan oraindik...), gero hauteskundeetan esku hartuzera (...presoak gartzeletan...), ondoren Senadora eta Gobernua (...presoak...)

Bitartean, Herriaren ordu heldu zen eta prest zeudenak herrigintzari ekin zioten. Azkenik, besteak ere etorri ziren esanaz:

– “Herria, Herria, zabaliezaguzu!”

Baina hark erantzun:

– “Bene benetan esaten dizuet: ez zaituztet ezagutzen.

(Eta ea hurrengorako esnatzen zareten)”.

Thomas Münzer

Amen.

LIBURUAK

ALFONSO IRIGOYEN
"Sorterriaren alde"
KRISSELU, 1976, Donostia.

Euskara batuan, 110 horrialde. Alfonso Irigoyen-en autobiografia. Frankismoaren lehen urtetako giroa Bilbon nolakoa zen ikus dezakegu liburu honetan, batez ere euskaldunontzat, agintariak nolako oztopoak ezartzen zizkiguten edozein sinplekeriagatik. Gogora dezagun oraintsu arte Bilboko egunkarietan "Pais Vasco" aipatzea debekatua zegoela. Haren orde, "region Norte", "el Norte" etab. erabili behar ziren. "Vascos" hitza ere debekatuta zegoen. Baina gauza harrigarriena debeku hau Madriletik ez zetorrela da, hemengo Diputazioa eta Aituntamenduak kontrolatzen zituztenetik baizik, orain ikurrinaren lekuan "pendoi" zorioneko hori eskaintzen digutenengandik. Nahasmenduzko egun hauetan, nahastu nahi gaituztenak desmaskartzeko dokumentu balios bat da Irigoyen-en liburu hau.

BERNARDO ATXAGA
"Ziutateaz (I)"
KRISSELU, 1976 Donostia.

Euskara batuan, 94 horrialde. Nobela bat, baina ez nobela tradizional bat, ez temaren aurkezpenean ez tratatzeko eran. Euskararen aldetik ulergarri denez, konplikazio handirik gabe, nobelagintza forma berriekin desohituentzat ere ez du problema-rik liburua jarraitzea.

BERNARDO ATXAGA
"Ziutateaz (II)"
KRISSELU, 1976 Donostia.

Euskara batuan, 118 horrialde. Goian aipaturiko liburuaren jarraipena. Azken hiru horrialdeetan egilea irakurleari zuzenean mintzo zaio, nobelan erabiltzen dituen pertsonaia abstraktuak gaurkotzen. Bestalde, "kontsumoaren aurka, krazia" aldarrikatzen du. Liburu eraginkorra, onuragarria.

JESUS MARIA ARRIETA
"Harkaitz, elurra ari zueneko haurra"
GERO, 1976 Bilbo.

Euskara batuan, 140 horrialde. KIMU sailean, gaztetxoentzako nobela, Euskal Herria kristautu aurreko garaietan girotua. Nobela interesgarria, ez soilik tema nola tratatua dagoen aldetik, baizik eta autorea garai haietako giroa hobekien aurkezten ahalegintzen delako. Beraz, liburu hau ez da entretenigarri bat soilik, euskal paganismoaren aurkeztailea ere baizik.

LUIS MARIA MUJICA
"Hitzak ebakitzean"
KRISSELU, 1976 Donostia.

Euskara batuan, 144 horrialde. Argitaretxeak liburuaren presentapenean esaten duenez, Mujikaren poemagintza Aresti eta Lasaren arteko zubi bat bezalakoa dugu, jadanik euskal irakurlegoarentzat ezaguna haren eskutik irteniko liburuengatik: "Bide giroak" (1963) eta "Urdin eta burni" (1965). Bestalde, Mujikak saiera praktikatu du: "Aintzina Sozioekonomia" (1974) eta "Gizartea eta parasozialismoa" (1975). Baina sozial tematika urri da azken liburu honetan. Gabriel Arestiri eskaintzen dion bertsoan honela bukatzen du: "Agian, Gabriel, -hire bertso eroak- gure bost koplak halako -balioa zeukak". Ez. Mujikaren poemak ba dute baliorik eta gogoz irakurtzen dira.

JUAN GARMENDIA
"De etnografia vasca"
Caja de Ahorros Guipuzcoa,
1976 Donostia.

Gaztelania batuan, 252 horrialde. Oso txukun aurkeztua, kolorezko irudiekin. Baserria, ohitura zaharrak, etab.
Xabier Gereño

KARLOS OTEGI

"Pertsonaia euskal nobelagintzan"
GERO, 1976, Bilbo.

*Euskara batuan, 240 horrialde. Liburuaren lehen 70 horrialdeetan zehar euskal nobelagintzari begirada arin bat bota ondoren, batez ere pertsonaia atxikiaz, hurrengo kapituluetan lau nobela hautatu ditu autoreak aztergai bezala: Txomin Agirre-
ren "Garoa", Txillardegiren "Leturia-ren egunkari ezkutua", Angel Lertxundiren "Ajea du Urturik", eta Martin Ugalderen "Itsasoa ur-bazter luzea da". Egia esan, orain arte argitaratu diren euskal literaturari buruzko saiok oso urriak dira eta liburu hau hutsune hori betetzera dator. Euskal literatura indartu eta hobea gotu nahi badugu, honelako liburuak beharrezkoak ditugu. Gaiaren aldetik oso ongi erabilia, Karlos Otegi euskara erraz bat erabiltzen du. Irakurleak gogoz irakurriko duen liburu bat.*

RAMON SAIZARBITORIA.
"Ene Jesus"
KRISSELU, 1976, Donostia.

Euskara batuan, 176 horrialde. Liburu hau nobela bat duzue, baina ez era tradizionala, abangoardiakoa baizik. Beraz, irakurle askorentzat estrainio gertatzen da. Beren jeneroan duen balio maila ukatu gabe, eztabai-datua izango den liburua.

JULIO VERNE
IÑAKI AZKUNE
"Lurraren bihotzeraino"
GERO, 1976, Bilbo.

Euskara batuan, 160 horrialde. KIMU sailakoa, hau da, gaztetxoentzako nobela. Beraz, euskara errazean, eta haugatik ez soilik ballagarri gaztetxo haientzat, baizik eta euskara praktikatu nahi duten adin guztitakoentzat. Ongi aurkeztua, inprimatua eta irudiekin hornitua.



POSTAZ ETORRIAK

Jana DAVANT
Lasustea
64240 HASPARREN

Quiero contestar a su artículo de la semana pasada que se refiere a las "elecciones municipales en Euskadi norte" en las cuales estoy implicada. Yo podría hacerlo en un castellano bastante "incorrecto", porque tuve la suerte de hablarlo con unas compañeras españolas, cuando trabajaba como criada en París. Pero lo haré en euskara, porque esta es la lengua nacional de los vascos, en ambos lados del Bidasoa.

1.- Artikulu hori idatzi duenak, ipar aldeaz hitz egiten du, hemen hego aldeko politik egoera ber-bera bagenu bezala. Ipar aldea ez du ezagutzen, edo honen egoeran ez du ezer ulertzen. Zuek, hego aldeko haurrideok, azken bi gizaldi hauetan nazional askatasunaren aldeko burruka egin duzue. Hemen aldiz, azken urte hauek arte ez dugu abertzale-tasunik ezagutu. Denbora poxi bat uzkuzue arren!.

2.- Udaleko hauteskundeek jomuga zein ote da? Lehendabizi, udala kudeatuko dutenen aukeratzeari, ez Euskadiko Presidentaren izendatzea, orain-koan segurik.

3.- Horiek hola, ez da harritu behar baldin ipar aldeko bozka horietan ez bada lista bakar bat ere agertu oso abertzalea.

4.- Hargatik, Hazparnen, ezkerreko lista euskaltzale bat izan dugu, argi eta garbi EHAS-ek bultzaturik. Hortan parte hartu dute EHAS-en hiru puntu hauekin bat egiten direnek:

a) Ipar Euskal-Herriak, departamendu-eskualde baten osotzea hartzen duela, Euskararen ofizialki-detasuna hortan lortuz. (Euskaldunak kazeta, n 34 Otsailan).

b) Ikastola, diru aldetik beregain hartu behar duela udalak (Euskaldunak n 35, Martxoan).

c) Arrasatekin (edo hego aldeko beste hiri batekin) uztartu behar duela Hazparnek, lantegi berriak hemen sortzeko eta jakintzazko harremanak azkartzeko (Euskaldunak n 35).

Hiru puntu hauk, beste batzuren artean, oso abertzaleak dira, dudarik gabe, ipar aldeko egoeran behintzat. "Sukurtsalista" batzueri horien onharraztea hain gaizki ote da?

Ezkerreko listaren euskaltzaleatasuna, HERRIA astekarian agertu dut, 1383garren zenbakian, kazeta horren buruzagiarekin ukan nuen alkar hizketa luze ta zehatz batean. Egia erran, ene izena ixilean utzi zuen...

5.- Jean BERRIA, aldi bakar batez etorri zaigu ezkerreko bileretara. Ez du inoiz ere "euskal problemaren" aipatzerik eskatu, hau gure ekazkietan eta programan aski nabari baita. Eskatu duena da ezkerreko listak bere burua abertzale oihusta zezan. Hori, ezinezkoa zela aurretik ba zekien, zeren listan ez dauden bakarrik EHAS-ekoak. BERRIA-k idatzi zidana hau zen: "union de la gauche" batean

parte hartzeko gutziarik ez zuela, erdirakoia baita frantses.

Gero, ene senarrak ikusi zuen, gure hiru puntuak aipatuz eta erakutsiz ez zela ezkerreko batzuren lista bat, baina abertzaleen eta beste ezkerreko auto-gestiozale batzuren arteko hautsi-mautsi bat. Erantzunaren emaitzeko epe bat utzi genion. Azkenean ezetza izan zen, besterik gabe.

6.- Baionan, Alderdi bezala sartu ziren EHAS-ekoak, frantses alderdiekin batera. Ofizialki EHAS-eko bezala presentatu zituen kazetaurrean listako buruak, Jean LANNES PS-ekoak. Ezagutza horrek bere garrantzia ba du hemen.

7.- Abertzaleak direla eskubikoekin ari diren batzue ere -Bai-. Baina mementoan, horien listetan, euskal problemaz ez da ezer agertzen: euskal kulturaz bi hitz, labur bezain epel eta lanbrotsu. Hargatik bozten naiz herriko bozetan agertu baitira. Baina zuen artikuluan aipatu dituzuenetarik kanpo, asko dira sartu diren abertzaleak, bereziki Zuberoan eta Nafarroa Beherean. Beharrik. Alde hortarik, bai eta Hazparneri eta Baionari dagokio-lan, oso maingu eta soil agertzen zait zuen ikerketa.

EHAS-i esker, azkenean zulotik ateratzen ari zaigu ipar aldean abertzaleatasuna. Guztiz ez utz, otoi!

Jana DAVANT, EHAS-ekoa.



GOBIERNUREN EKINTZAK:

- KRISISREN ESPEDIENTEAK
- DESPIDUA ASKATU GREBA-REN ESKUBIDEA GABE

EUSKAL LANGILERIA:

Momentu honetan, bestetan gure egoera oso txarra da, hai landa ekonomikoan bai beste landean.

Gaur egunean, Espainia eta atzerriaren monopolioak surreruntz doaz, eta bere lanegietan, postulanak eguneroko guttiago dira.

Enpresen txiki eta ertainerren egoera, atzerantz eguneroko da. Enpresa asko itxitaik dira edo bereeragin-tza suspenditutaik dira, eta honen ondorioa hau da: jende asko, kalean izango dira.

Gobernu orain arte, ez du hartu ekintzak kapital nagusiaren aurka, gainera gobernuak kapital nagusiaren alde dago. Gobernuaren ekonomikoan neurriak ezinak ez daude langileria alde, langileria aurka baizik (Bizkaitan gutxi gora behera 95 krisisen espedienteak arte balean, eta hau ez da diana, estorkizunaren gehiengo noski).

Etagainera, gobernuak grebaren eskubide aurka dago, eta horain eta beti, grebaren eskubidea gure ekintza onena kapitalisaren aurka burrukatze da.

Gaur egunean, langileketa gure etsai nagusia da.

Momentu honetan gure heburu nagusia hau da: lanpostu denontzat.

Horregatik, L.S.B.-U.S.O., CCOO. eta U.G.T., eskatzen ditugu eskual langileria hau: lanteri, auzo, eta herrietan batzarak egitea.

Gure helburuak lortzeko, batasuna gauza behar-beharrak da. Gure akintza lotua momento honetan, gure seme onena da, hau dudarik gabe.

BURRUKAN DENOK LOTUTAK:

- DESPIDUREN AURKA
- LANAREN EHARREMANEN DEKRETO-LEGE AURKA
- LANDOZTUAK DENONTZAT
- GREBA, ADIERAZPEN ETA IBIALDIA ESKUBIDEN ALDE

L.S.B.-U.S.O., CCOO., U.G.T.



Perla berri bat bidali digute orain. Gure irakurleek, sanskritoz baldin badakite, ezraz asmatuko dute zein hizkuntzatan idatzita dagoen hori hau.

Textu honek dakartzan okerrak erdal eskribu batetan baleude, jakina, edozeinek esango luke, eta arrazoiz, hori egin dutenek, ezer esaten hasi aurretik, eskolatik pasatu beharko luketela. Eta astakeria hau idaztera ausartu direnak zer? Bihoaz ikastolara!

Euskara ez da erdara ez bezalako zerbait, ez da, besterik gabe, itxura egiteko mordoilo ulergaitz bat, euskaldunok ulertzeko hizkuntza propio bat baizik. Eta euskaldunok, gutienez, beste edozeinek merezi duen errespetua bera ez ote dugu ba merezi?.

LANKIDE AURREZKIAK honelaxeko **200 ERREGALI** zozkatuko ditu...

Lankide Aurrezkiak, apiril eta maiatzeko aurreztaileeri altzairu herdoigaitzezko mahaitresneria dotoreak eskaintzen dizkie. 200 familitan urteetan ere pozez erakutsi eta zorionez gozatuko diren erregali dotoreak, halafede!



CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE AURREZKIA



Gipuzkoan, nor gu baino gertuago?

91 etxe zuretzat hurbilago

Izan ere, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa etxe hau duzue Gipuzkoako Kutxetan lehengoa.

Horregatik, gipuzkoarren zerbitzurako beti gertu eta prest-egotera behartuak gauzazu. Hauxe da gure egitekorik nagusiena. Horretarako sortu zen, batik bat, Caja de Ahorros

Provincial de Guipúzcoa 1896. urtean. Gipuzkoarren kutxa duzue Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Ba duzu arrazoirik, beraz, gurekin elkaturik egon zaitezten.

Utz ezazu zeure uste osoa Gipuzkoako lehen Kutxa den etxe honetan.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA**

